

Herrialde txostena: Argentina

basque
trade &
investment

2020ko urria

+ Euskadiren Argentinako - Mercosur ordezkari-tza

+ Adimen Lehiakorreko Unitatea




**BasqueTrade
& Investment**

Agencia Vasca de Internacionalización
Nazioartekotzeko Euskal Agentzia

GRUPO
spri
TALDEA



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**
BASQUE GOVERNMENT



EDUKIEN AURKIBIDEA

1. DATU OROKORRAK	4
2. BEGIRADA	5
3. TESTUINGURU SOZIO-POLITIKOA	6
4. TESTUINGURU MAKROEKONOMIKOA	7
4.1. Abagune ekonomikoa	7
4.2. Balantza komertziala	8
4.3. Atzerriko inbertsioa	8
4.4. Enplegua	9
4.5. Perspektiba ekonomikoak	11
5. KANPO-MERKATARITZA	14
6. ALDEBIKO HARREMANAK	21
6.1. Euskadiren eta Argentinaren arteko merkataritza	21
6.2. Euskadiren posizionamendua	24
6.3. Aldebiko inbertsioak	25
7. SEKTORE NAGUSIAK	26
7.1. Ekarpena BPGari	26
7.2. Merkatuko bolumenak	27
7.3. Negozio-aukerak	29
8. NAZIOARTEKO HARREMANAK	31
8.1. Nazioarteko kidetasunak	31
8.2. Merkataritza-akordioak	32
9. ASKOTARIKO ARRISKUAK	34
10. ONDORIOAK	36
11. ERREFERENTZIAK	38
12. ERANSKIN METODOLOGIKOAK	40



TAULEN AURKIBIDEA

1. taula: Adierazle ekonomiko garrantzitsuenak (mila milioi USD)	8
2. taula: Kanpo-merkatariaren adierazle garrantzitsuenak	8
3. taula: Atzerriko zuzeneko inbertsioa	9
4. taula: Enplegu adierazleak	10
5. taula: Aurreikuspen ekonomikoak	12
6. taula: Inportatutako produktu garrantzitsuenak (2018)	15
7. taula: Esportatutako produktu garrantzitsuenak (2018)	15
8. taula: Esportazioak sektoreka eta herrialdeka / eremu ekonomikok (2018 - 2019) - Iturria: INDEC	18
9. taula: Inportazioak erabilpen ekonomikok, herrialdeka eta eremu ekonomikok (2018 - 2019) - Iturria: INDEC	18
10. taula: Argentinako inportazioak EBko herrialde garrantzitsuenekin (2019)	19
11. taula: EBtik inportatutako produktu garrantzitsuenak (2019)	19
12. taula: Muga-zergen osaera herrialdeka (CIF baloreak milioi USDetan)	20
13. taula: Euskal esportazio sektorialak Argentinara (milaka euro)	21
14. taula: Euskaditik Argentinara gehien esportatu diren 10 produktu garrantzitsuenak (2019) (milaka euro)	21
15. taula: Euskadik Argentinatik eginiko inportazioak sektoreka (milaka euro)	22
16. taula: Argentinatik inportatutako produktu garrantzitsuenak (2019) (milaka euro)	22
17. taula: Euskadiren eta Argentinaren arteko nazioarteko merkataritzaren bilakaera (2016-2019)	23
18. taula: Euskaditik Argentinarako esportazioek Espainiako esportazioetan duten pisu erlatiboa, sektoreka	23
19. taula: Argentinarekiko merkataritzan garrantzia duten euskal sektoreak (2017)	24
20. taula: Argentinan eginiko euskal inplementazioak	25
21. taula: Sektore garrantzitsuenak / BPGa (2018)	26
22. taula: BPGaren osaera sektoreka (2019)	26
23. taula: Argentinako manufaktura-industriaren osaera (2019)	27
24. taula: Kide den nazioarteko erakundeak eta ekonomia eta merkataritza arloetako erakundeak	31
25. taula: Kreditu-kalifikazioak	35
26. taula: Kreditu-profila eta COFACEren balorazioa	35
27. taula: Argentinako esportazioak sektoreka - Iturria: INDEC	40
28. taula: Argentinako inportazioak sektoreka - Iturria: INDEC	41

GRAFIKOEN AURKIBIDEA

1. grafikoa: <i>Per capita</i> BPGaren bilakaera USDetan (2011ko 3. hiruilekoko oinarria = 100) 2011 eta 2019 artean	7
2. grafikoa: Kanpo-merkataritza (2012 - 2019) - Iturria: INDEC	14
3. grafikoa: Kanpo-merkataritza (milioi USD, partaidetza eta portzentajeen bariazioa. 2019)	16
4. grafikoa: Argentinako esportazioen jomuga garrantzitsuenak (2019) - Iturria: INDEC	16
5. grafikoa: Argentinako inportazioen jatorri garrantzitsuenak (2019) - Iturria: INDEC	17
6. grafikoa: Euskadiren eta Argentinaren arteko Kanpo-merkataritza (2010 - 2018)	23
7. grafikoa: Argentinara esportatzeko potentzial handiena duten produktuak	30
8. grafikoa: Argentinak sinatutako akordioak eta kanpo merkataritzarekin duen harremana - Iturria: El Cronista Comercial (Argentina)	32
9. grafikoa: Argentinako herrialde-arriskuaren bilakaera (1999-2020)	34



➔ 1. DATU OROKORRAK



GOBERNUA

Izen ofiziala: Argentinako Errepublika
Gobernua: Errepublika
Presidentea: Alberto Fernández (2019/12/10ean hartu zuen agintea) - 4 urteko agintaldia
Gobernu mota: Demokrazia ordezkatzaille, errepublikano eta federala



BIZTANLERIA

Guztira: 45 milioi
Hazkunde naturala: % 1,04
Hirietako biztanleria: % 92
Hizkuntza ofiziala: gaztelania
Negoioetarako hizkuntza: gaztelania - ingelesa
Hiriburua: Buenos Aires hiri autonomoa (CABA)
Hiri garrantzitsuenak (milioi biztanleka):
 Buenos Aires (2,90), Córdoba (1,33), Rosario (1,19), San Miguel de Tucumán (0,7)



EKONOMIA

BPGa (2019, mila milioi USD): 445
Manufakturako BPGa (2018, milioi USD): 66
Per capita BPGa (PPP, 2019, USD): 20.055
BPGaren hazkundea (2019): % -2,5
Urteko inflazioa (2019): % 50,3
Enplegua: 20,43 milioi
Enplegu-tasa (2019): % 55,3
Langabezia-tasa (2019): % 10,6
Ondasun eta zerbitzuen esportazioak (2018, mila milioi USD): 74,24
Ondasun eta zerbitzuen inportazioak (2018, mila milioi USD): 85,36
Merkataritza (BPGaren %-a): % 61
Kanbio-tasa (EUR/ARS): Euro 1 = 73,26 ARS (20/05/31)
Kanbio-tasa (USD/ARS): Dolar 1 = 66,84 ARS (20/05/31)



BESTE BATZUK

GGI: 0,83 (2018) >> 47.a mundu mailan eta 2.a eskualde mailan
Gini indizea: 0.42 (2019) >> 3.a eskualde mailan
Doing Business indizea: 59 >> 5.a eskualde mailan
I+G-n eginiko gastua BPGarekiko: % 0,54
Internet erabiltzaileak: % 74,3

Iturria: Munduko Bankua



2. BEGIRADA

Lehenik eta behin, azpimarratzekoak dira Argentinaren eta Euskadiren arteko lotura kultural eta sozial historikoak. Izan ere, Argentina da munduan euskal etxe gehien dituen herrialdea, euskal emigrante gehienek hara jo baitzuten XIX. eta XX. mendeetan. Hala, kalkulatzen da Argentinako biztanleriaren % 10 inguruk euskal arbasoak dituela.

Plano ekonomikoan, Argentinak inbertsio-aukera erakargarriak eskaintzen ditu hainbat ekoizpen-sektoretan, bere langileen kualifikazio handiagatik eta bere baliabide naturalen kalitateagatik. Hori dela eta, Argentinaren asmoa da kalitatezko atzerriko inbertsio zuzen produktiboa erakartzea herrialdearen garapenari laguntzeko, hau da, toki garrantzitsu bat izateko nazioarteko negozioen mapan, 300.000 milioi USD-tik gorako inbertsio-aukerak eskainiz ekoizpen-jarduera desberdinetako sektore nitxo askotan.

Badaude euskal enpresarientzat bereziki interesgarriak diren hainbat ekoizpen-sektore, besteak beste, hauek:

- Elikagaiak eta edariak: mundu mailako liderra da elikagaien ekoizpenean eta esportazioan;
- Bioteknologia: Argentinak dauka bioteknologiako enpresen Latinoamerikako *per capita* portzentaje handiena. Sektore nitxoaren artean aipatzekoa da animalia jatorriko proteinena, aukerak eskaintzen dituen ganadu ekoizpena handitzeko eta tokiko eskaera gero eta handiagoa hornitzeko, aleen superabitari esker;
- Energia berriztagarriak: munduko lehen esportatzailea eta hirugarren ekoizlea da biodieselaren sektorean, eta potentzial handia du eguzki eta haize energien nahiz energia hidroelektrikoaren sektoreetan. 2025erako helburua: kontsumoaren % 20 energia berriztagarriekin asetzea;
- Softwarea eta zerbitzu informatikoak: gune teknologiko asko daude herrialde osoan. Espero da antenen sarea hazi egingo dela datozen urteetan, 5.000 milioi USD inguruko inbertsioarekin;
- Industria sortzaileak: telebistako edukien munduko laugarren esportatzaile handiena da;
- Petrolioa eta gasa: Vaca Muerta (35.000km²) hobiari esker, Argentina 2.a da gas-baliabide ez konbentzionaletan, eta 4.a petrolio sektorean. Hobi hori garapen fasean dago gaur egun. Gainera, badu garatu gabeko 500.000 km²-ko offshore plataforma bat;
- Meatzaritza: Argentinak potentzial handiko 750.000 km² ditu (% 75 ustiatu gabe), badu baita ere munduko litio-erreserba handienetako bat (gai dena bere ekoizpena biderkatzeko), eta urre, zilar eta kobrea meatokiak;
- Automozio eta auto-zatien industria: sektoreko enpresek ibilbide luzea dute, eta Argentina Hego Amerikako bigarren herrialdea da ekoizpen bolumenean;
- Zerbitzu tekniko eta profesionalak: Argentinako profesional eta teknikariak ezagunak dira nazioartean euren kualifikazio eta sormen maila handiagatik;

COVID-19ari dagokionez, Argentinako gobernuak osasunean jarri zuen arreta, eta koronabirusaren hedapena murrizteko baliatu zituen bere tresna gehienak. Halere, derrigorrezko berrogeialdiak (AMBA eskualdean –Buenos Aires eta bere inguruko 40 udalerrir- 120 eguneko itxialdia daramate txosten hau idazten ari garen momentuan) ekonomiaren beherakada are handiagoa ekarri zuen. Egoera hori ikusirik, Gobernuak neurri-sorta bat prestatu zuen sektore kalteberenei diruz laguntzeko. Zentzu horretan, eta Latinoamerika eta Kariberako Batzorde Ekonomikoarekin (CEPAL) nahiz Elikadura eta Nekazaritzarako Nazio Batuen Erakundearekin (FAO) bat etorritik, Argentina da Covid-19aren ondorioak arintzeko eta bere ekonomia zein biztanleak sozialki eta lan arloan babesteko neurri gehien hartu dituen Latinoamerikako herrialdea. Baina hainbat txosten pribatuk diote 7 hiruhileko beharko direla ekonomia krisiaren aurreko jarduera mailara itzul dadin.

Laburbilduz, Argentina aberatsa da baliabide naturaletan, eta inbertsio-aukera aproposa izan liteke etorkizunari begira. Euskal ezarpen ugari daude Argentinan, nahiz eta merkatu txiki samarra izan, non euskal esportazioak ez diren esanguratsuak eta interes txikia duten inbertsioen jatorri gisa.



3. TESTUINGURU SOZIO-POLITIKOA

2019ko gertaera garrantzitsuena hauteskundeak izan ziren. Cambiemos (zentro eskuina) alderdiak agintaldi erdiko hauteskunde legegileetan (2017) lortutako garaipen handiak pentsaraz zezakeen proposamen hark jarraipena izango zuela beste 4 urtez; alabaina, gauzak guztiz aldatu ziren 2018tik aurrera, kanbio-tasen krisiek eta Nazioarteko Diru Funtzarekiko (NDF) akordioak balio-galera handiak eragin zituztelako, eta horrek inflazioa eta pobrezia areagotu zituelako. Mauricio Macri-ren eta bere erreferente eta aliatu nagusiaren (Buenos Aires probintziako gobernadorea, María Eugenia Vidal) ospea ikaragarri kaltetu zen, Buenos Aires probintzia izan zelarik krisi ekonomikoak gogorren kolpatutako barrutietako bat. Gainera, barruti horreketan jaitsi ziren gehien gizarte eta lan arloetako adierazleak. Horrek guztiak porrot handia eragin zuen bai primarietan eta bai hauteskunde orokorretan.

Hala, Argentinak ziurgabetasun politikoan murgilduta igaro zuen urtearen zati handi bat, baina ziurgabetasun hori gaintitzea lortu zuen egiaztatu zenean Alberto Fernández – Cristina Fernández (Frente de Todos – zentro ezkerre) bikotearen formula botoen % 48arekin gailendu zitzaiola zentro eskuineko formulari (Juntos por el Cambio, % 40), zeinak aukera ematen zion Mauricio Macri-ri berrautatua izateko. Frente de Todos aliantza peronismo tradizionalaren (alderdi justzialista – PJ) eta zenbait sektore moderaturen batasuna da eta kirchnerismoa da euren ardatz nagusia.

Hala, honelaxe gelditu zen Argentinaren antolakuntza politiko berria: 15 probintzia gobernu peronista-kirchneristen agintepean daude, besteak beste, Buenos Aires, Entre Ríos eta San Luis; beste 3tan gobernu peronista ez kirchneristak daude agintean (Córdoba, Santa Fe eta Salta); eta 4 probintzian zentro eskuina iritsi da gobernura (Cambiemos-Juntos por el Cambio): Ciudad de Buenos Aires, Mendoza, Jujuy eta Corrientes. Azkenik, 2 probintzia geratu dira Argentinako politika egituratzen duten bi poloetatik kanpo, gobernu probintzialen mende daudelako.

Hala, herrialdeko 5 barruti ekonomiko garrantzitsuenetatik 3 PJ-ren esku gelditu dira (zuzenean edo zeharka): Buenos Aires, Córdoba eta Santa Fe.

Alberto Fernández presidente berriak eta bere kabineteak abenduaren 10ean hartu zuten kargua. Azpimarratzekoa da lehen aldia izan zela Argentinako historian presidente ez peronista batek bere agintaldia amaitu ahal izan zuela eta aukera izan zuela presidentearen eskumenak demokratikoki hautatutako beste agintari bati entregatzeko. Aro hasiberri honetan, administrazio berriak gobernadore, sindikatu eta antolakunde sozialekiko aliantzen inguruan egituratuko du bere boterea. Gainera, *quorum* propioa (baina ez gehiengorik) izango du Senatuan eta diputatuen artean. Azken ondorio gisa, gogoeta bat hauteskudeen eta bere emaitzen inguruan: Argentinako gizartearen bereizketa edo polarizazio ideologikoa gero eta sakonagoa da kirchnerismoa babesten dutenen eta haren aurkakoen artean.

Bukatzeko, herrialdearen antolakuntza administratiboa 23 probintzian egituratzen da, eta bakoitzak baditu bere gobernua, Batzar Legegilea eta Batzar Konstituzionala. Horiekin batera, Hiriburu Federala dago (Buenos Aires Hiri Autonomoa).




➔ 4. TESTUINGURU MAKROEKONOMIKOA

4.1. Abagune ekonomikoa

Argentinaren egoera ezin txarragoa izan zen 2019an. Atzeraldia, aurreko urtean hasita zegoena, sakondu egin zen (9 hiruilekoko jaitsierak metatu dira dagoeneko). Egon zen hobekuntza-zantzuren bat, baina abuztuko primarien emaitzak ikusita, adierazle guztiak uzkurto eta okertu ziren. Biztanleko BPGaren adierazleak (dolarretan) erakusten du zein latza den Argentinak bizi duen krisia: *per capita* diru-sarrerak 15.600 USDekoak ziren 2017ko laugarren hiruilekoan, aldiz, 10.000 USD ingurukoak dira gaur egun.

1. grafikoa: *Per capita* BPGaren bilakaera USDetan (2011ko 3. hiruilekoko oinarria = 100) 2011 eta 2019 artean



Iturria: INDEC

Urtearen lehen erdian jarduerak nolabaiteko erresilientzia erakutsi zuen arren, adierazleek etengabe egin zuten behera hirugarren hiruilekotik aurrera eta 2019ko azaroan jarduera ekonomikoak bi urteko atzeraldia erregistratu zuen, 2001/2002 urteetako krisiaz geroztik izan den atzeraldirik luzeena. Beherakada hori hertsiki lotuta dago devaluazioekin, zeintzuk gero eta maizago gertatu baitira azken hiruilekoetan, eta baita ere etengabeko kapital ihesak erreserbetan eragin duen sarraskiarekin. Kapitalak ihesi egin du kanbio-tasaren gainbeherak saihesteko, eta hainbestekoa izan da ihes hori, berriz ezarri behar izan direla kapital kontrolak. Hala, etengabeko devaluazioak direla-medio inflazioak % 50a gainditu zuen, azken 28 urteetako tasarik altuenera iritsiz.

Finantzaketa-premiak, 2018ko lehen hiruilekora arte zorroko inbertsioekin asetzen zirenak, beste era batera asetzen hasi ziren: lehenik, Nazioarteko Diru Funtsaren maileguarekin (57.000 milioi USD; organismo horrek inoiz eman duen handiena), eta ondoren nazioarteko erreserbekin. Kapital ihesa hazi egin zen abuztuko hauteskundeen emaitzak ezagutu ondoren. Testuinguru horretan, NDFk erabaki zuen ez egitea 5.400 milioi USD-ko seigarren ordainketa, irailaren amaieran egin beharrekoa. Hala, kapital ihesak zuzenean eragin zien nazioarteko erreserbei, apirilko 77.500 milioi USDetik (maximoa) urriko (presidentetzarako hauteskundeak) 43.500 milioi USDera jaitsi zirelarik. Erreserben etengabeko beherakada horren aurrean, Argentinako Errepublikako Banku Zentralak (BCRA) erabaki zuen dibisa-erosketak mugatzea buruko eta hileko 10.000 USD aurrezteko, eta handik bi astea kopuru hori bortizki jaitsi zen 200 USDera. Eszenatoki horretan, ez dago baldintzarik NDFk Stand-by akordioaren markoan 2020rako ezarritako helburuak betetzeko.



Atzeraldi eta inflazioen ondorioek kalte handiak eragiten dituzte oraindik aldagai sozialetan. Langabezia berriro hazi da, premia larriena duten pertsonen benetako diru-sarrerak oso azkar murriztu dira, eta pobrezia eta txirotasuna ugartu egin dira. Diru-sarreraren jaitzierak eta langabeziak pobrezia handiagoa ekarri dute, eta lehen sei hilekoan biztanleriaren % 35 pobrezia-egoeran zegoen (aurreko sei hilekoan baino % 3,4 gehiago eta aurreko urtean baino % 8,1 gehiago). Bestalde, indigentzia (elikagaien oinarritzko saskia betetzeko adina diru-sarrera ez duten biztanleak) ere handitu egin zen, biztanleriaren % 7,7ra iristeraino.

1. taula: Adierazle ekonomiko garrantzitsuenak (mila milioi USD)

ADIERAZLEA	2017	2018	2019	2020 (e)	2021 (e)
BPGa prezio korrontetan – PPP (mila milioi USD)	916,72	915,75	911,56	864,89	920,97
BPGa (urteko hazkundearen %, prezio konstantea)	2,7	-2,5	-3,1	% -9,9	% 3,7
Inflazio-tasa (%)	24,8	47,6	53,8	N/A	N/A
Langabezia-tasa (biztanleria aktiboaren %)	7,2	9,2	10,6	10,9	10,1

Iturria: Nazioarteko Diru Funtza (NDF) – World Economic Outlook Database (2020ko apirila eta ekaina)

4.2. Balantza komertziala

Balantza komertzialak saldo positiboa izan zuen 2019an, batetik, atzeraldi gogorragatik eta horrek inportazioetan izan zuen eraginagatik (urte arteko % 26,2ko beherakada izan zuten irailean) eta, bestetik, uzta onari esker esportazioek izandako gorakadagatik (ia % 5). Nahiz eta saldo komertzialak hobera egin zuen inportazioen murrizketagatik, faktore hori ez zen nahikoa izan kontu korrontean superabita sortzeko. Hala, zorpetzeak handitzen jarraitu zuen atzerriko txanponean (USD).

2. taula: Kanpo-merkataritzaren adierazle garrantzitsuenak

ADIERAZLEA	2014	2015	2016	2017	2018
Ondasunen inportazioa (milioi USD)	65.229	59.787	55.609	66.930	65.443
Ondasunen esportazioa (milioi USD)	68.335	56.752	57.737	58.622	61.620
Zerbitzuen inportazioa (milioi USD)	16.357	17.490	19.679	24.664	23.611
Zerbitzuen esportazioa (milioi USD)	13.488	13.652	12.697	14.520	13.912
Kanpo-merkataritzaren (BPGaren %)	28,4	22,5	26,1	25,2	30,7
Balantza komertziala (milioi USD)	5.541	-785	4.416	-5.462	-867
Balantza komertziala (zerbitzuak barne) (milioi USD)	900	-6.600	-4.035	-15.611	-10.149
Ondasun eta zerbitzuen inportazioa (urteko hazkundea %-tan)	-11,5	4,7	5,8	15,4	-4,7
Ondasun eta zerbitzuen esportazioa (urteko hazkundea %-tan)	-7,0	-2,8	5,3	1,7	-0,7
Ondasun eta zerbitzuen inportazioa (BPGaren %)	14,0	11,8	13,6	14,0	16,4
Ondasun eta zerbitzuen esportazioa (BPGaren %)	14,4	10,7	12,5	11,2	14,3

Iturria: Merkataritzaren Munduko Erakundea (MME)

4.3. Atzerriko inbertsioa

Atzerriko inbertsio zuzenaren (AIZ) Argentinanzko fluxuak ezegonkorak izan dira urtetan. Nazio Batuetako Merkataritzaren eta Garapenaren arloko Konferentziak (CNUCYD) 2019an munduko inbertsioari buruz argitaratu zuen txostenaren arabera, Argentinaren fluxuak % 5,8 hazi ziren 2017an eta 2018an, eta 12.162 milioi USDerari iritsi ziren 2018aren amaieran. Hazkunde horren arrazoiak dira, batetik, AIZ erakartzeko eta azpiegiturak modernizatzeko politika berriak, eta bestetik, Vaca Muerta hobiko gas ekoizpena bideratutako fluxuak, hobi horrek AIZren fluxu guztien heren bat jaso baitzuen. Hala, Latinoamerika eta Karibeko hirugarren AIZ hartzailea izan zen 2018an. AIZren stock-ak % 9,8



murriztu ziren epealdi berean, 72.700 milioi USDeraino iritsiz 2018an (BPGaren % 14). AIZren bolumenaren erdia baino gehiago Estatu Batuetatik, Espainiatik eta Herbehereetatik iritsi zen. Baina badaude beste inbertitzaile garrantzitsu batzuk ere: Brasil, Txile, Suitza, Uruguai, Frantzia, Alemania eta Kanada. Inbertsio horiek sektore zehatz hauetara zuzendu ziren gehienbat: manufakturak, meatzaritza eta petrolio erauzketa, merkataritza, banka eta beste finantza erakunde batzuk, informazio eta komunikazioak, nekazaritza, automozio industria, zentral elektrikoak, litio ekoizpena eta telekomunikazioak. Azken sektore horiek bolumen osoaren % 58 jaso zuten.

Halere, 2019a eszenatoki kezagarria izan zen inbertsiorako, ez bakarrik barne-jarduera ezin baxuagoagatik, baizik eta baita ere kanbio-tasaren egoera ziurgabeagatik, zeinak inpaktu handia izan baitzuen kapital-ondasunen inportazioei buruzko erabakietan. Hala, inbertsioak urte arteko % 18ko jaitsiera izan zuen 2019ko 2. hiruhilekoan, eta % 10etik gorakoa 3. hiruhilekoan. Zentzu horretan, debaluazioak gogor kolpatu zituen kapital-ondasunen inportazioak, % 37,4ko beherakada izan zutelarik 2. hiruhilekoan. Erakunde pribatuen kalkuluen arabera, AIZak behera egingo zuen berriro 2020an, nahiz eta azpierzarritako gaitasuna handia izan, batez ere kanbio-merkatuak ezarritako murrizketengatik, ekonomiak ez duelako azkar suspertzeko itxurarik eta obra publikoa jaitsi egin delako. Eszenatoki horrek okerrera egin zuen Covid-19a agertu zenean. Capital Fundazioak eginiko txosten baten arabera, “inbertsioak urte arteko % 9,8ko jaitsiera izango du, eta % 30 murriztuko da 2017arekin alderatuta”.

Funtsean, Argentinak pisua galdu du AIZ hartzaile gisa eskualdeko beste herrialde batzuekin alderatuta: eskualdeko AIZ metatu guztiaren % 3,4 hartzen du, eta askoz aurrerago ditu Brasil (% 34,8), Mexiko (% 24,8), Txile (% 12,6), Kolonbia (% 8,1) eta Peru (% 4,4). Hala, Argentinak jasotako atzerriko inbertsioa Latinoamerika osoak jasotakoaren % 17,2koa izan zen 2001ean; aldiz, eskualde osoko inbertsioen % 3,4 baino ez zuen jaso 2017an. Latinoamerika osoa kontuan hartuz gero, AIZ laukoiztu egin zen 2001etik 2017ra bitartean (ia % 383 hazi zen), baina Argentinan egonkor mantendu zen, gorakada garbirik gabe.

Horregatik, gobernu berriaren helburua da AIZ erakartzea, datozen urteetarako hazkundera bermatzeko. Halere, atzerriko inbertsioarekiko irekiera globala batez bestekoaren azpitik dago. Aipatzekoa da Argentinak badituela abantailak: baliabide natural oparoak ditu (kobrea, gasa, petrolio), eta baita ere lan-esku kualifikatu eta lehiakorra; baina 1990eko hamarkadaren amaieran eta 2000koaren hasieran jasandako krisi ekonomikoan transmititutako irudiak asko kaltetu zuen Argentina. Gobernuak lehentasunezko zerga-erregimena ezarri du automozioaren sektorearentzat, ibilgailuen eskualde mailako kateak sustatzeko MERCOSUR-eko herrialdeen artean, baina negozio-giroak eskas samarra izaten jarraitzen du. Hala ere, azken hiru urteotan atzerriko enpresek iragarri dute 33.000 milioi USDeko inbertsio-plan berriak egingo dituztela, eta enpresa horietatik gehienak Estatu Batuetan, Alemanian, Kanadan, Espainian eta Brasilen kokatuta daude.

3. taula: Atzerriko zuzeneko inbertsioa

ADIERAZLEA	2016	2017	2018
Sartzen den AIZen fluxua (milioi USD)	3.260	11.517	12.162
AIZ hornikuntza (milioi USD)	74.868	80.700	72.784
Greenfield inbertsio kopurua	116	69	119
Sartzen diren AIZak (KFEGren %)	7,1	n/a	n/a
AIZ hornikuntza (BPGaren %)	16,2	n/a	n/a

Iturria: UNCTAD

4.4. Enplegua

2019a azken 13 urteetako epealdirik txarrena izan da Argentinako enpleguarentzat. Hirietako biztanleriaren langabezia-tasa biztanleria aktiboaren % 10,6ra iritsi zen bigarren hiruhilekoan, eta % 8,9an kokatu zen urte amaieran. Lan Ministerioak emandako informazioaren arabera, iaz 166.800 lanpostu galdu ziren sektore pribatuan (aurreko urtean baino % -2,7 gutxiago), baina 48.200 lanpostu berri sortu ziren sektore publikoan. Sektore pribatuko galera handienak eraikuntzan (-47.300), manufakturako industrian (-50.000) eta merkataritzan (-32.100) gertatu ziren. Hala, 2016 eta



2019 urteen artean ugaritu ziren bakarrak enplegu informalak izan ziren, bai soldatapekoenak eta baita ere erregistratu gabeko autonomoenak (“beltzean”). INDECen (Estatistika eta Errolden Institutu Nazionala) datuen arabera, lan-indarra asko prekariotu eta pobretu zen, soldatak jaitsi egin ziren eta orobat jaitsi zen soldatapeko lansarietako ekoizpenean duten parte-hartzea.

Lan-merkatua bere onera etorriko da ekonomiak norabide zuzena berreskuratzen badu, eta horretarako, gobernuak abenduan agindutako neurriak hartzen hasi behar du. Baliteke lehen neurriekin (neurri heterodoxekin, hots, sektore publiko zein pribatuko langileen soldatak egokitzeko jarraibideei buruzkoekin) bizitzaren kostuak izandako gorakada parekatzea. Hondamendia litzateke langileentzat soldata errealak jaisten jarraitzea hirugarren urtez jarraian.

Seguruenik ezagutzaren industrian lan egiten duten konpainiak izango dira 2020an euren langile-eskaera mantendu eta handituko duteneko batzuk. Ezagutzaren industriak erdi- eta goi-mailako know-how profesionala esportatzen du eta premia handia du profil berriak hartzeko arlo desberdinetan, hala nola, teknologian, kontabilitatean, finantzetan, zergetan, giza baliabideetan eta erosketetan. Hauek dira gaur egun enplegua eskatzen ari diren industria apurrak: informazio teknologiak, fintech, energia eta petrolioia eta nekazaritzako industria; gainerako sektoreak lehendik dauzkaten langileei eusten ari dira.

Ikusteko dago Alberto Fernándezen agintaldian posible izango ote den garai berrien arabera lan-erreforma moderno bat lortzea. Marko legal berri, moderno, malgu, inklusibo eta estrategikoago bat ez badago, ezin da kalitatezko enplegu pribaturik sortu. Etorkizuneko lan-eszenatokiak ez dauka marko legal aproposik, adibidez, lan-merkatuan sartu ahal izateko freelance langileak edota proiektuak edo urrunetik aritzen direnak. Gainera, abantaila fiskalak eman behar lirateke adinagatik, generoagatik edo gaitasun desberdinengatik lan-munduan atzeratuta gelditu diren pertsonak kontratatzeke. Lan-eskaera ez da sekula suspertuko ez badira ETEak berraktibatzen, enpresa txikiak izan baitira Argentinako enpleguaren benetako motor historikoa.

4. taula: Enplegu adierazleak

ADIERAZLEAK	2019
Enplegua guztira (milioiak)	23
ENPLEGUA SEKTOREKA	
• Lehen sektorea (%)	2,1
• Industria sektorea (%)	24,8
• Zerbitzuen sektorea (%)	73,1
Langabezia-tasa (%)	8,9
<i>Iturria: MUNDUKO BANKUA (MB)</i>	

COVID-19: Enplegua Argentinan

Koronabirusak ekarri duen mundu mailako berehalako ondorio ekonomikoetako bat izan da lanpostu ugari suntsitu direla, kutsadura saihestu beharrez eten egin behar izan delako jarduera ekonomikoa. Lanaren Nazioarteko Erakundearen (LNE) arabera, isolamendu neurriek eragina izan dute munduko 10 langiletik 8rengan, jardueren garapena eragotzi dutelako, lantokietara joateko aukera mugatu dutelako eta asko murriztu dutelako barne-eskaera.

Argentina egoera kritikoan zegoen koronabirusaren krisia baino lehenago ere. Azpierzaitako gaitasun instalatua, kontsumo maila baxua, lehiakortasun arazoak, ezegonkortasun politiko eta makroekonomikoa, politika sektorialaren gorabehera bortitzak eta egoera fiskal eta finantzario larria (zerga-presio handia eta interes-tasa ordainezinak), horrelakoxea zen Argentinak pandemiaren aurretik bizi zuen egoera.

Argentinako lan-merkatua zurrunda da, oso garestia da langile bat formalki kontratatzea, eta hori atzeragarria da enplegatzailearentzat garai oparoetan pertsona bat kontratatu behar duenean, baina babes handiagoa ematen du krisi



garaietan. Halere, hori horrela da soilik langilegoaren erdiarentzat, alegia, soldatapeko langile formal publiko (3 milioi) eta pribatuentzat (6 milioi). Publikoek egonkortasun-maila handia dute, eta testuinguru honetan gerta dakiekeen gauza bakarra da soldatak jaistea denbora baterako. Soldatapeko langile pribatuak heterogeneoagoak dira. Badaude ondasun ekoizleak eta zerbitzu hornitzaileak (% 33 eta % 66 hurrenez hurren), eta bi herenek ETEetan lan egiten dute. Horregatik, pandemiak langile horiei ekarriko dizkien ondorioak sektorearen arabera izango dira, eta baita ere enpresa batek hainbat aste edo hilabeteri ia diru-sarrerarik gabe (edo batere gabe) aurre egiteko duen finantza-gaitasunaren arabera, kontuan izanik ekonomia atzeraldian zegoela pandemiaren aurretik ere.

Testuinguru horretan, enpresa askok erabaki dute lehen seihilekoko soldata igoerak atzeratzea eta portzentajezko 3-10 puntu bitarteko murrizketak egitea. Bestalde, % 8k erabaki dute urtearen lehen erdian inolako igoerarik ez egitea. Bigarren seihilekoari dagokionez, enpresa gehienek (% 68) oraindik ez dute zehaztu aldaketarik egingo duten; aldiz, % 8ak adierazi du jaitzierak egingo dituztela soldata igitzeko aurrekontuetan.

Langile berriei dagokionez, enpresen % 20k aurreikusi dute bertan behera utziko dituztela martxan zeuzkaten kontratazioak; % 6k erabaki dute langile kopurua murriztuko dutela kaleratzea debekatzen duen 329 dekretua indargabetzen denean, eta % 4 kontratu-eteteak ebaluatzen ari dira. Gainerako % 4ak erabaki du lanaldia murriztea, soldata murriztea edo aldi-bateko kontratazioak egitea. Enpresen % 17k oraindik ez dute ezer erabaki, eta % 48k diote ez dutela aldaketarik aurreikusten.

LMEk kalkulatu du balitekeela Argentinak 340.000 lanpostu galtzea pandemiaren ondorioz, baldin eta BPGa % 4 jaisten bada. Organismo horren arabera, hauek izango dira sektore kaltetuenak: emakumeak, langile informalak eta autonomoak (monotributistak).

4.5. Perspektiba ekonomikoak

Gobernu berriak oso egoera konplexua du aurrean. Erabilgarritasun libreko nazioarteko erreserba gutxi ditu, berriro atzeratu ditu zerbitzu publikoen tarifak (2019ko maiatza – abendua arteko igoerak bertan behera utzi zituen), ez dauka inolako finantzaketarik atzerriko txanponean kanbio-merkatuan esku hartu ahal izateko, eta langileek etengabe eskatzen dute euren eros-ahalmena berreskuratzea; egoera horretan, ez dirudi inflazioa murrizteko helburua beteko denik. BCRAk urte honetarako egin dituen aurreikuspenen arabera, inflazioa % 42 ingurukoa izango da.

Gobernu berriak hainbat neurri garrantzitsu hartu zituen bere lehen egunetan, besteak beste, hauek:

Ekonomikoak:

- Larrialdi publikoa deklaratu zuen arlo hauetan: ekonomia, finantzak, zergak, administrazioa, aurreikuspenak, tarifak, energia, osasuna eta gizarte arloa. Hala, Gobernuaren esku utzi zituen Kongresuaren eskumen batzuk arlo horietan aldaketak egiteko.
- Atxikipenak nekazaritza sektorean: atxikipen handiagoak sojarentzat (% 33), artoarentzat, gariarentzat eta ekilorearentzat (% 15). Eskualdeetako ekonomietako nekazaritza-industriako produktuarentzat % 5eko gehieneko alikuota ezarri da, eta berdin ondasun industrialetarako eta zerbitzuetarako ere. Hidrokarburoetatik edo meatzaritzatik ateratako ondasun esportagarrien kasuan, gehienezko muga % 12tik % 8ra murriztu da.
- Dolarra eta aurrezkiak: atzerriko txanponarekin eginiko kontsumoek % 30eko erretegia izango dute, eta erretegi bera aplikatuko zaio atzerriko txanpon erosketari, baldin eta gordetzeko erosten bada. Neurri horrek 5 urteko iraupena izango du. Atzeritik iritsitako Internet bidezko entretenimendu plataformen kasuan (adibidez Netflix), zergaren igoera % 8koa izan da. Gaur egun, 8 kotizazio-tasa desberdin daude dolarrarentzat: Txikizkaria/Aurrezki/Txartela: pertsona bakoitzak gehienez 200 USD eskuratu ditzake hilean; enpresek, berriz, zorrak eta inportazioak ordaintzeko erabil ditzakete, baina ez metatzeko edo gordetzeko; Blue: merkatu informalean saltzen da, eta % 70etik gorako etena du dolar ofizialarekiko; Contando con Liqui: USDak atzerrian eskuratzeko operazio legal bat da, eta gehienbat enpresek erabiltzen dute (Argentinako tituluak edo akzioak erosten dituzte pesotan, eta gero atzerrian saltzen dituzte USDetan); Handizkaria: kanpo-merkataritzako



operazioetan erabiltzen da, zor dolarizatuak eta dibidenduak ordaintzeko. Eragina du inportatutako produktuen prezioak finkatzeko orduan; Industria eta Zerbitzuetakoa: manufaktura eta zerbitzuetako esportatzaileek erabiltzen dute; Soja: soja, artoa, garia eta ekilorea esportatzen duten ekoizleei aplikatzen zaie; Okela eta esnekiak: produktu horiek atzerrian saltzen dituztenei aplikatzen zaie;

- Zerbitzu publikoetako tarifak: izoztuta egon dira ekainaren 30era arte, eta Gobernuari baimena eman zaio esku hartzeko bai Argindarra Erregulatzeko Erakundearen (ENRE) eta bai Gasa Erregulatzeko Erakundearen (ENARGAS). Izozte hori orobat aplikatzen da bidaiarien garraio publikoan, eta aztertzen ari dira enpresak jasotzen ari diren subsidioen sistema birformulatu ala ez.
- Gasolinaren eta bide-sarien tarifak: agindu zen 120 egunez Argentina osoko errepideetako bide-sariak izozteko, eta gasolinaren prezio igoerak ere izoztu ziren.
- BCRAk bankuetako enkajeak malgutu zituen finantza-erakundeak funts gehiago mailegatzera bideratzeko.

Zerga arlokoak:

- Ondasun Pertsonalen gaineko Zerga: zati alikuota handitu egin da zergaren eskala desberdinetan. Atzerrian ondasunak dauzkatenen kasuan, “ezohiko ordainsari” bat aplikatuko zaie, eta “kompentsazio” bat ere aurreikusi da ondasun horiek aberrira itzultzen dituztenentzat. Gutxieneko oinarri zergagarria ez da aldatuko.
- Aldatu egin da enpresetako balantzeetan inflazioagatik doikuntza kalkulatzeko mekanismoa. Igo egin dira ibilgailuen, motorren eta kirol itsasontzien inportazioagatik barne-zergak ordaintzeko gutxieneko kopuruak. Bikoiztu egin dira kontsumo-ondasunak inportatzeko estatistika-tasak; aldiz, pesotan dauden bonu, aurrezki kutxa eta epe finkoek ez dute finantzazko errentarik ordainduko.
- ETEak: zergen erabateko salbuespena edo salbuespen partziala aplikatuko zaie, eta gainera, plan berri bat sortuko da euren zorrak ordaindu ditzaten.

Lan arlokoak:

- Soldatak: Gobernuari eskumena eman zaio “gutxieneko soldata igoerak” aplikatzeko sektore pribatuko langileei. Larrialdiko igoera finko bat izango da, eskala baxueneko langileei zuzendua, eta soldaten inguruko eztabaida geldiarazi du 120 egunez.
- Kalte-ordain bikoitza: presidentetzaren dekretu bidez, kalte-ordain bikoitza ezarri zen bidezko arrazoirik gabe kaleratutako langileentzat. Indarrean egongo da 180 egunez.

Gizarte arlokoak:

- Pentsioak eta plan sozialak: BEZa automatikoki itzuliko da titular bakoitzaren kontura, gehienez 700 ARS. Gainera, “movilidad jubilatoria” delakoa -pentsio eta plan sozialen igoerak Kontsumitzailearenganako Prezioen Indize edo KPIarekin lotzen zituena- 180 egunez eten da; hemendik aurrera, Gobernuaren dekretu bidez zehaztuko dira kopuruak. Bestalde, erabaki zen 2019ko abenduan eta 2020ko urtarrilean 5.000 ARS-ko bonua ematea, gutxieneko pentsioa 19.068 ARS-koa (275 USD) izan zedin.
- Osasun Larrialdia: txertoa jartzeko planak luzatu egin dira, eta aztertzen ari diren neurria da medikamentuak doan ematea diru-sarrerara gutxien dituzten pentsiodunei.
- Elikadura txartela: seme-alabak dituzten diru-sarrerara gutxiko familietako amentzat. Espero da neurri horrekin 60.000 milioi ARS inguru bideratuko direla tokiko ekonomiara.
- “Ahora 12” eta “Precios Cuidados” planak: supermerkatuekin negoziatu ondoren, 90 egunez luzatu zen kreditu-txartel bidezko erosketen interesak murrizteko “Ahora 12” programa, eta urtearen amaierara arte luzatu zen elikagaien prezioak hiruhererik behin berrikusteko “Precios Cuidados” plana;

5. taula: Aurreikuspen ekonomikoak

ADIERAZLEA	2018	2019	2020	2021
BPGa prezio konstantetan (urteko bariazioaren %)	-2,5	-2,2	-5,7	4,4



BPGa prezio korrontetan (mila milioi USD)	915,75	911,56	864,88	920,97
<i>Per capita</i> BPGa prezio konstantetan (PPA bariozioaren %)	-3,5	-3,1	-6,6	-3,4
Langabezia-tasa (%)	9,2	9,8	10,9	10,1

Iturria: NDF, World Economic Outlook Database (2020ko apirila)

COVID-19: Pandemiaren inpaktua Argentinako ekonomian

Argentinako ekonomista garrantzitsuenen aurreikuspenen arabera, berrogeialdian 500 eta 1.000 milioi USD inguruko galerak izan dira egunero; urteko jardueren beherakadari erreparatuz gero, iragarpenek diote jaitsiera pandemia iritsi aurretik aurreikusitakoa (BPGaren % 1,5ekoa) baino bizpahiru puntu handiagoa izango dela. Martxoaren 20an agindutako berrogeialdia 30 egunez luzatzen bada, BPGaren beherakada % 2,7koa izango da; aldiz, 45 egunera luzatzen bada, % 4,6koa izango da. Sektoreka aztertuz gero, pandemiak BPGaren % 1,6ko inpaktua izango luke ondasun ekoizleen artean, eta % 5,9koa zerbitzuak ekoizten dituzten sektoreetan.

CEPALek (Latinoamerika eta Kariberako Batzorde Ekonomikoa) aurreikusi du Argentinako ekonomiak BPGaren % 6,5eko jaitsiera izango duela 2020an, Latinoamerikako batez bestekoa (% 5,3) baino handiagoa. Eskualdeko beherakadarik handiena izango litzateke, 1914koaren (Lehen Mundu Gerra) eta 1930ekoaren (Depresio Handia) parekoa. Bestalde, NDFk eginiko kalkuluen arabera, Argentinako BPGaren jaitsiera % 5,7koa izango litzateke eta langabezia-tasa % 11 ingurukoa. Susperraldia 2021ean iritsiko litzateke % 4,4ko portzentajearekin. Baina gaur egun nagusi den ziurgabetasuna dela medio, zifra horiek ez datoz bat Munduko Bankuak emandakoekin: -% 5,2 2020an eta % 2,2ko hazkundera datorren urterako. NDFk bere datuak eguneratu ditu berriki, hala, balioetsi du jaitsiera % 9,9 ingurukoa izango dela 2020an, eta 2021ean ekonomia % 3,7 haziko dela.

Argentinako ekonomiaren beherakada bortitz honen atzean barneko arrazoiak daude (osasun arloko gastu handiagoak eta biztanleriak bete beharreko berrogeialdia), baina baita kanpokoak ere: Argentinaren bazkide garrantzitsuenek ere BPG jaitsiera handiak jasan dituzte, hala nola, Estatu Batuek (% -6), Euroguneak (% -7,5), Brasilek (% 5,2) eta Txinak (% 1,2 bakarrik haziko da). Halaber, *commodity*-en prezioaren jaitsierak eragina izango du Argentinan, sojaren eskaera % 5-6 inguru murriztuko baita eta artoa % 10 inguru; gariaren eta okelaren prezioak ere jaitsiko dira.




➔ 5. KANPO-MERKATARITZA

Argentina nahiko itxita egon da nazioarteko merkataritzarako, baina 2015aren amaieratik ahaleginetan dabil egoera hori aldatzeko. Brasil da bere bazkide komertzial garrantzitsuena, bai esportazioetan eta bai inportazioetan ere, eta atzetik doazkio Estatu Batuak, Txina, Txile, Vietnam eta Europar Batasuna (azken hori da bigarren bazkide komertziala, Brasilen ondoren).

MMEren azken datuen arabera (2018), Argentinak 61.600 milioi USD esportatu zituen ondasunetan, eta 65.400 milioi USDko inportazioak egin zituen. Zerbitzuei dagokienez, Argentinak 23.600 milioi USDko inportazioak egin zituen, eta 13.900 milioi USDko esportazioak. Oro har, inportazioek % 4,7ko beherakada izan zuten aurreko urtearekin alderatuta, eta esportazioak % 0,7 murriztu ziren, 10.100 milioi USDeko balantza komertzial negatiboa sortuz.

2. grafikoa: Kanpo-merkataritza (2012 - 2019) - Iturria: INDEC



2019ko datuekin alderatuta, sektore ekonomiko guztietako **inportazioek** urte arteko % 10etik gorako jaitsierak izan zituzten batez beste. Adibidez, murrizketarik handiena bidaiarientzako motordun ibilgailuek izan zuten (% 55ekoa zehazki), ondoren kapital-ondasunek (% 31), erregai eta lubrifikagarriek (% 32), kontsumo-ondasunek (% 25) eta, azkenik, kapital-ondasunentzako osagarriek (% 16). Urte arteko beherakada % 25ekoa izan zen.

Hala ere, azpimarratzekoa da iaz muga-zergen posizio hauek gorakada nabarmenak izan zituztela: modulu edo xafrentzako eguzki-zelulak (201 milioi USD), motorrentzako zatiak, sorgailuak, multzo elektrogenoak eta bihugailu birakariak (106 milioi USD), motorren eta makina motrizen zatiak (77M USD) zisterna-ontziak (70 milioi USD) eta, azkenik, lurrun eta ur berozko galdara-zatiak (70 milioi USD). Hona hemen 2018an inportatutako produktu garrantzitsuenen zerrenda.



6. taula: Inportatutako produktu garrantzitsuenak (2018)

KODEA	PPRODUKTUA	Milioi USD	%
29	Produktu kimiko organikoak	2.437,76	% 17,38
39	Plastikoa eta bere manufakturak	2.382,85	% 16,98
30	Produktu farmazeutikoak	2.372,19	% 16,91
38	Produktu kimikoak n.e.c.	1.346,45	% 9,60
31	Ongarriak	1.114,94	% 7,95
72	Galdaketa, burdina eta altzairua	1.111,41	% 7,92
40	Kautxua eta bere manufakturak	1.011,37	% 7,21
73	Burdinurtuzko manufakturak	978,22	% 6,97
26	Mineralak, zepak eta errautsak	675,82	% 4,82
99	Zehaztu / sailkatu gabeko commodity-ak	598,18	% 4,26
10 PRODUKTU GARRANTZITSUENAK GUZTIRA		14.029,20	% 100,00

Iturria: COMTRADE

Esportazioei dagokienez, susperraldia lehen sektoreko produktuen eskutik etorri zen (% 26), nekazaritzako manufakturekin, erregaiekin eta energiarekin batera. Halere, manufaktura industrialen esportazioek % 7ko jaitziera izan zuten, eta prezioak egonkor mantendu ziren.

7. taula: Esportatutako produktu garrantzitsuenak (2018)

KODEA	PPRODUKTUA	Milioi USD	%
10	Zerealak	7.537,98	% 35,27
99	Zehaztu / sailkatu gabeko commodity-ak	2.773,86	% 12,98
2	Okela eta errai jangarriak	2.530,98	% 11,84
3	Arraina, krustazeoak eta moluskuak	2.111,74	% 9,88
38	Produktu kimikoak n.e.c.	1.687,81	% 7,90
20	Barazki, fruta, intxaur edo landareen beste zati batzuekin eginiko prestakinak	1.195,06	% 5,59
39	Plastikoa eta bere manufakturak	1.072,91	% 5,02
22	Edariak, likoreak eta ozpinak	932,73	% 4,36
76	Aluminioa eta bere manufakturak	808,88	% 3,78
30	Produktu farmazeutikoak	720,69	% 3,37
10 PRODUKTU GARRANTZITSUENAK GUZTIRA		21.372,65	% 100,00


Iturria: COMTRADE

Hala, **balantza komertzialak** ia 16.000 milioi USDeko superabita izan zuen iaz (azken 10 urteetako handiena). Superabit hori lortu zen ale eta okela salmentak handitu zirelako eta atzeraldia erostetarako jaitzarazi zituelako, 2 urtetako saldo negatiboa aldatuz. Truke komertziala (esportazioak gehi inportazioak) % 10,2 murriztu zen, 114.240 milioi USDera iritsiz. INDECek emandako informazioaren arabera, esportazioak % 5,4 baino ez ziren hazi 2019an, nahiz eta pesoak balio-galera handiak izan zituen 2018ko apirilean eta abuztuan, eta baita ere 2019ko abuztuan. Bestalde, inportazioak % 25 murriztu ziren.

Erakunde beraren arabera, hauek izan ziren 2019an gehien hazi ziren esportazioak: “landare erreinuko produktuak” (batik bat, soja, artoa eta garia), % 35,1 hazi zirenak 2018arekin alderatuta, eta “Gantzak eta olioak” (soja olioak), % 18 hazi zirenak. Hirugarrenik, “Animalia biziak eta animalia erreinuko produktuak” saileko kanpo-salmentak % 14,2ko hazkundera izan zuen (okela salmenta Txinara). Erregai- eta energia-salmenten sektorea ere hazi egin zen (% 4,1). Sail horretan sartzen dira petrolio gordina, gasa, erregaiak eta argindarra. Aldiz, produktu kimikoen esportazioak % 10,8 murriztu ziren, eta garraioko materialenak % 12,4.




3. grafikoa: Kanpo-merkataritz (milioi USD, partaidetza eta portzentajeen bariazioa. 2019)




Iturria: INDEC

Herraldeka, hauek izan ziren Argentinaren bazkide komertzial garrantzitsuenak azken urtean: [4. grafikoa: Argentinako esportazioen jomuga garrantzitsuenak \(2019\)](#) - Iturria: INDEC



5. grafikoa: Argentinako inportazioen jatorri garrantzitsuenak (2019) - Iturria: INDEC



2019an, Brasil, Txina eta Estatu Batuak izan ziren bazkide komertzial garrantzitsuenak, hurrenkera horretan (esportazio eta inportazioen batura kontuan hartuta). Brasilerako esportazioak 10.389 milioi USDeakoak izan ziren, eta inportazioak 10.159 milioi USDeakoak. Saldo komertzialak 226 milioi USDeko superabita izan zuen. Txinarako esportazioak 7.058 milioi USDeakoak izan ziren, eta inportazioak, berriz, 9.267 milioi USDeakoak. Kasu honetan, defizit komertziala 2.209 milioi USDeira iritsi zen. Bestalde, Estatu Batuetarako esportazioak 4.104 milioi USDeakoak izan ziren, eta inportazioak 6.274 milioi USDeakoak; hala, defizita 2.170 milioi USDeira iritsi zen abenduan. Hiru herrialde horiek Argentinako esportazioen % 33,1 suposatu zuten eta inportazioen % 52,3 ahalbidetu zuten.

Aldebiko harremanei dagokienez, Espainia Argentinaren 9. bezeroa da. Bestalde, Argentina 13.a da Espainiako esportazio hartzaileen artean, eta 42.a Espainiaren hornitzaileen artean. Hauek dira Argentinak Espainiako merkatuan gehien erosten dituen produktuak: erregaiak, autoak eta automozioiko osagaiak, produktu kimikoak, energia eolikoko ekipak eta makina eta gailu elektrikoak. Zerbitzuen arloan, finantza-zerbitzuak nabarmentzen dira, bai eta aseguruak eta aholkularitza ere. Hauek dira Espainiak Argentinari gehien erosi zizkion produktuak: soja, arrantzako produktuak eta itsaskia, eta kobrea.

Taula honetan ikusten da nolakoa izan den esportazioek azken urtean izan duten bilakaera, eremu ekonomikoen eta sektoreen arabera.



8. taula: Esportazioak sektoreka eta herrialdeka / eremu ekonomikoka (2018 - 2019) - Iturria: INDEC

Zonas económicas y países seleccionados	Grandes rubros														
	Total			Productos primarios			Manufacturas de origen agropecuario			Manufacturas de origen industrial			Combustibles y energía		
	2019*	2018*	Var.	2019*	2018*	Var.	2019*	2018*	Var.	2019*	2018*	Var.	2019*	2018*	Var.
	Miles de dólares		%	Miles de dólares		%	Miles de dólares		%	Miles de dólares		%	Miles de dólares		%
Total	65.115	61.782	5,4	17.540	14.021	25,1	23.981	22.941	4,5	19.221	20.618	-6,8	4.374	4.201	4,1
Mercosur	12.691	14.173	-10,5	1.968	2.158	-8,8	1.967	2.163	-9,1	8.175	9.166	-10,8	582	686	-15,2
Chile	3.058	3.061	-0,1	545	585	-6,8	941	982	-4,2	1.028	1.210	-15,0	543	284	91,2
Resto de ALADI	3.665	3.140	16,7	1.159	620	86,9	979	983	-0,4	1.460	1.469	-0,6	66	68	-2,9
SICA	726	643	12,9	76	51	49,0	129	98	31,6	482	479	0,6	39	14	178,6
NAFTA	5.423	6.363	-14,8	595	634	-6,2	1.153	1.257	-8,3	2.618	3.465	-24,4	1.057	1.008	4,9
Unión Europea	8.811	9.254	-4,8	1.787	2.032	-12,1	4.311	4.995	-13,7	2.262	2.029	11,5	451	198	127,8
Suiza	1.692	1.291	31,1	4	4	-	26	30	-13,3	1.663	1.257	32,3	-	-	-
CEI	699	839	-16,7	262	254	3,1	393	541	-27,4	45	45	-	0	-	///
ASEAN	6.357	5.260	20,9	2.605	1.856	40,4	3.571	3.294	8,4	113	s	s	68	s	s
China	7.058	4.497	56,9	3.629	1.916	89,4	3.024	1.667	81,4	204	275	-25,8	201	640	-68,6
República de Corea	844	291	190,0	711	213	233,8	116	22	427,3	16	57	-71,9	-	-	-
Japón	453	486	-6,8	165	159	3,8	130	137	-5,1	158	190	-16,8	-	0	-100,0
India	2.160	1.601	34,9	47	28	67,9	1.838	1.469	25,1	267	58	360,3	s	s	s
Medio Oriente	3.303	2.932	12,7	1.151	1.097	4,9	1.674	1.569	6,7	243	s	s	234	s	s
Magreb y Egipto	3.316	3.255	1,9	1.739	1.660	4,8	1.513	1.548	-2,3	63	s	s	-	s	s
SACU	603	521	15,7	s	s	s	309	291	6,2	156	173	-9,8	s	s	s
Oceania	674	752	-10,4	20	s	s	489	512	-4,5	132	204	-35,3	32	s	s
Resto del mundo	3.581	3.420	4,7	953	683	39,5	1.418	1.383	2,5	132	154	-14,3	1.077	1.201	-10,3

Era berean, iazko inportazioak ere aztertu ditzakegu jatorriaren eta produktu-familiaren arabera.

9. taula: Inportazioak erabilpen ekonomikoka, herrialdeka eta eremu ekonomikoka (2018 - 2019) - Iturria: INDEC

Zonas económicas y países seleccionados	Usos											
	Total			Bienes de capital			Bienes intermedios			Combustibles y lubricantes		
	2019*	2018*	Var.	2019*	2018*	Var.	2019*	2018*	Var.	2019*	2018*	Var.
	Miles de dólares		%	Miles de dólares		%	Miles de dólares		%	Miles de dólares		%
Total	49.125	65.483	-25,0	8.478	12.238	-30,7	17.132	20.448	-16,2	4.446	6.555	-32,2
Mercosur	12.243	18.379	-33,4	1.455	2.886	-49,6	5.442	7.031	-22,6	406	551	-26,3
Chile	537	710	-24,4	28	35	-20,0	299	372	-19,6	0	58	-99,2
Resto de ALADI	1.963	2.246	-12,6	10	8	25,0	247	277	-10,8	1.276	1.432	-10,9
SICA	21	30	-30,0	8	9	-11,1	5	6	-16,7	-	-	-
NAFTA	7.733	9.980	-22,5	1.483	1.826	-18,8	2.875	3.381	-15,0	1.314	1.819	-27,8
Unión Europea	8.947	11.266	-20,6	1.731	2.392	-27,6	2.888	3.292	-12,3	368	534	-31,1
Suiza	404	580	-30,3	37	57	-35,1	217	251	-13,5	1	1	-
CEI	253	559	-54,7	5	5	-	212	269	-21,2	28	276	-89,9
ASEAN	2.685	2.867	-6,3	422	432	-2,3	392	426	-8,0	79	44	79,5
China	9.267	12.092	-23,4	2.641	3.780	-30,1	2.726	3.045	-10,5	7	43	-83,7
República de Corea	502	643	-21,9	167	136	22,8	165	222	-25,7	8	10	-20,0
Japón	895	1.082	-17,3	191	263	-27,4	161	183	-12,0	3	2	50,0
India	809	889	-9,0	59	80	-26,3	458	479	-4,4	110	66	66,7
Medio Oriente	533	1.147	-53,5	48	52	-7,7	144	261	-44,8	285	734	-61,2
Magreb y Egipto	413	391	5,6	2	8	-75,0	360	245	46,9	12	91	-86,8
SACU	138	218	-36,7	34	31	9,7	46	70	-34,3	1	20	-95,0
Oceania	260	381	-31,8	13	18	-27,8	201	275	-26,9	30	66	-54,5
Resto	1.522	2.022	-24,7	143	220	-35,0	294	363	-19,0	519	807	-35,7

Atal honekin bukatzeko, arreta eskainiko diogu **Argentina eta EBren arteko nazioarteko merkataritzari**, eta horretarako kontuan hartuko ditugu EBko 5 herrialde garrantzitsuenak. Lehenik eta behin, aipatzekoa da bloke honekiko merkataritzak 136 milioi USDeko saldo negatiboa izan zuela 2019an. Esportazioak 8.811 milioi USDeran iritsi ziren, aurreko urteko epealdi berean baino 443 milioi USD gutxiago. Bestalde, inportazioen urteko arteko jaitsiera 2.319 milioi USDkoa izan zen. Europar Batasunarekiko merkataritzak Argentinako esportazio guztien % 13,5 eta inportazioen % 18,2 kontzentratu zuen.



10. taula: Argentinako inportazioak EBko herrialde garrantzitsuenekin (2019)

HERRIALDEAK	2019	
	(CIF balorea miloi USDetan)	(%)
Alemania	2.765,87	% 44
Frantzia	1.125,97	% 18
Italia	977,22	% 15
Espainia	884,91	% 14
Erresuma Batua	583,16	% 9
Top 5 guztira	6.337,14	% 100
UE27 guztira	8.363,49	

Iturria: INDEC

11. taula: EBtik inportatutako produktu garrantzitsuenak (2019)

MUGA-ZERGA POSIZIOA	PRODUKTU GARRANTZITSUENAK	CIF balorea miloi USDetan	%
8503.00.90	Motor, sorgailu, multzo elektrogeno eta bihurgailu birakarietarako zatiak, beste inon sailkatu gabe daudenak.	214,19	% 3,38
3002.15.90	Produktu immunologiko dosifikatuak edo txikizkako salmentarako egokitutako produktuak, beste inon sailkatu gabe daudenak.	167,65	% 2,65
3004.90.69	Medikamentuak, konposatu heteroziklikoak, nitrogenozko heteroatomoak, txikizkako salmentarako egokituak, beste inon sailkatu gabe daudenak	142,16	% 2,24
8411.99.00	Gas turbinen zatiak	130,06	% 2,05
8408.20.20	Pistoizko motorrak, diesel edo erdi-diesel motorrak, autoak (1.500cm ³ baino gehiagoko eta 2.500cm ³ baino gutxiagoko zilindro-bolumena)	117,24	% 1,85
7110.21.00	Paladio gordina edo paladio-hautsa	75,26	% 1,19
8708.29.99	Pertsona eta merkatu-gaien garraiorako edo erabilpen berezietarako ibilgailuen karrozeria zati eta osagarriak, beste inon sailkatu gabe daudenak	74,35	% 1,17
3004.90.79	Medikamentuak, azido nukleikoak, konposatu heteroziklikoak, beste inon sailkatu gabe daudenak; sulfonamidak, heterosidoak edo eratorriak, txikizkako salmentarako egokituak, beste inon sailkatu gabe daudenak	72,23	% 1,14
3004.39.29	Medikamentuak, hormona polipeptidikoak edo proteinak, txikizkako salmentarako egokituak, beste inon sailkatu gabe daudenak	68,88	% 1,09
8703.23.10	6 pertsona edo gutxiago garraiatzeko ibilgailuak (1.500 cm ³ baino gehiagoko eta 3.000 cm ³ baino gutxiagoko zilindro-bolumena dutenak), txinpartaz pizten diren pistoizko motorrak	65,02	% 1,03
Top 10 produktuak guztira		1.127,05	% 17,78
Top 5 herrialdeak guztira		6.337,14	% 100

Iturria: INDEC



Azkenik, osaera, muga-zerbaren posizioaren eta herrialdearen arabera (CIF baloreak milioi USDetan).

12. taula: Muga-zerbaren osaera herrialdeka (CIF baloreak milioi USDetan)

MUGA-ZERGEN POSIZIOA	ALEMANIA	ESPAINIA	FRANTZIA	ITALIA	ERRESUMA BATUA	GUZTIRA
3002.15.90	152,41	1,25	2,06	11,04	0,88	167,65
3004.39.29	32,11	0,10	32,50	4,17		68,88
3004.90.69	93,65	11,60	6,50	16,45	13,96	142,16
3004.90.79	24,17	0,44	8,72	25,91	13,00	72,23
7110.21.00	0,00				75,26	75,26
8408.20.20	86,14		30,79	0,28	0,03	117,24
8411.99.00	117,04	0,00	7,86	3,64	1,51	130,06
8503.00.90	168,31	33,13	6,69	5,29	0,76	214,19
8703.23.10	36,64	8,66	12,83	3,16	3,74	65,02
8708.29.99	56,34	6,98	7,58	3,34	0,11	74,35
Guztira	766,82	62,16	115,53	73,28	109,26	1.127,05
<i>Iturria: INDEC</i>						



6. ALDEBIKO HARREMANAK

6.1. Euskadiren eta Argentinaren arteko merkataritza

Euskadi eta Argentinaren arteko truke komertzialari dagokionez, ikusten da **esportazioak** % 8 inguru bakarrik hazi direla azken 4 urteetan, eta Ekipo-ondasunak, Erdi-manufakturak eta Energia produktuak direla esportazio horien motor garrantzitsuenak. Sektore horien bilakaera bat dator herrialdeak epealdi horretan izandako gorabehera ekonomikoekin, eta horren erakusgarri da 2017an jotako gailurra, gero etengabeko beherakadak gertatu zirelarik 2 urtez. Hala, Argentina 43. postuan dago Euskaditik atzerrira eginiko salmenten zerrendan.

13. taula: Euskal esportazio sektorialak Argentinara (milaka euro)

	€ GUZTIRA	2016	2017	2018	2019
Sektore ekonomikoak	407.892	78.908	131.604	112.098	85.282
1 ELIKAGAIK, EDARIAK ETA TABAKOA	1.227	416	350	183	277
2 PRODUKTU ENERGETIKOAK	17.837	76	58	17.679	25
3 LEHENGAIK	1.149	202	513	91	343
4 ERDI-MANUFATURAK	129.046	29.901	36.518	33.693	28.933
5 EKIPO-ONDASUNAK	240.477	42.911	87.406	57.554	52.607
6 AUTOMOBIL SEKTOREA	6.200	1.347	2.717	1.316	820
7 KONTSUMO-ONDASUN IRAUNKORRAK	1.828	697	342	231	558
8 KONTSUMOKO MANUFATURAK	6.712	1.728	2.016	1.322	1.646
9 BESTE MERKATU-GAI BATZUK	3.415	1.629	1.685	29	71

Iturria: Datacomex

Sektore garrantzitsuenen artean, Ekipo-ondasunen sektoreak baino ez zuen izan hazkunde nabarmena, % 22tik gorakoa; erdi-manufakturrek % 3ko jaitziera izan zuten, eta Energia produktuen gainbehera % 67koa izan zen. Oro har, azken 4 urteotan ia sektore guztiak jaitzi dira, eta hauek izan dira beherakada handienak jasan dituztenak: Beste merkatu-gai batzuk (% 96), Autoak (% 39) eta Elikagai eta edariak (% 33); aldiz, Lehengaien sektoreak % 70eko hazkundera izan zuten.

14. taula: Euskaditik Argentinara gehien esportatu diren 10 produktu garrantzitsuenak (2019) (milaka euro)

PRODUKTUAK	€ GUZTIRA
Urteko bolumena guztira (milaka euro)	85.282
84 Erreaktore nuklearrak	22.153
72 Galdaketa, burdina eta altzairua	17.813
85 Makina eta aparatu elektrikoak	17.190
73 Burdinurtuzko manufakturak	5.334
83 Metalezko manufakturak	4.379
82 Tresnak eta lanabesak	2.422
76 Aluminioa eta bere manufakturak	2.059



28 Produktu kimiko inorganikoak	1.974
87 Automobilak	1.687
39 Materia plastikoak	1.595
<i>Iturria: Eustat</i>	

Bestalde, **Euskadik Argentinatik inportatzen dituen produktu garrantzitsuenak** dira Erdi-manufakturak, Elikagai, Edari eta Tabakoaren sektoreko produktuak eta, azkenik, Ekipo-ondasunak. 2016-2019 urteen artean, Argentinatik eginiko inportazioak ia % 131 handitu ziren, hazkunde esponentzialak eman zirelarik Erdi-manufaktura (% 1.790) eta Automozioaren (% 918) sektoreetan. Aldiz, sektore hauek izan zituzten jaitsiera handienak: Lehengaiak (% 96), Ekipo-ondasunak (% 81), Beste merkatu-gai batzuk (% 41), Kontsumo-ondasun iraunkorrak (% 37) eta, azkenik, Kontsumorako manufakturak (% 34). Azken urtea aztertuz gero, ikusten da inportazioek % 65eko jaitsiera orokorra izan zutela, eta aipatutako 9 sektoretik 6tan beherakadak erregistratu zirela, Automozioan (% 148), Kontsumo-ondasun iraunkorretan (% 164) eta Beste merkatu-gai batzuetan (% 4) izan ezik.

15. taula: Euskadik Argentinatik eginiko inportazioak sektoreka (milaka euro)

	€ GUZTIRA	2016	2017	2018	2019
Sektore ekonomikoak	59.004	3.515	24.424	22.955	8.110
1 ELIKAGAIK, EDARIAK ETA TABAKOA	14.217	2.769	3.526	4.942	2.981
2 PRODUKTU ENERGETIKOAK					
3 LEHENGAIK	289		123	161	4
4 ERDI-MANUFATURAK	41.532	252	20.012	16.496	4.771
5 EKIPU-ONDASUNAK	1.956	376	339	1.169	72
6 AUTOMOBIL SEKTOREA	448	21	122	87	217
7 KONTSUMO-ONDASUN IRAUNKORRAK	4		2		2
8 KONTSUMOKO MANUFATURAK	512	88	269	96	59
9 BESTE MERKATU-GAI BATZUK	45	7	30	4	4
<i>Iturria: Datacomex</i>					

16. taula: Argentinatik inportatutako produktu garrantzitsuenak (2019) (milaka euro)

	€ GUZTIRA
Guztira (milaka euro)	8.110
38 Produktu kimikoak	2.574
03 Arraina	2.488
76 Aluminioa eta bere manufakturak	1.860
16 Elikagai prestatuak	263
72 Galdaketa, burdina eta altzairua	249
08 Fruitu jangarriak	181
84 Erreaktore nuklearrak	172
87 Automobilak	85
32 Larrua ontzeko estraktuak	73
10 Zerealak	25
<i>Iturria: Eustat</i>	


Grafiko honek erakusten du Euskadiren eta Argentinaren arteko truke komertzialak 2010 eta 2018 urteen artean izandako bilakaera historikoa. Hor ikusten da **balantza komertziala** Euskadiren aldekoa izan zela epealdi horretan



(gailurrik handienak 2014an eta 2015ean izan ziren; puntu baxuena, berriz, 2012an). Orokorrean 2016 eta 2019 urteen artean saldo hori % 2,36 baino ez zen hazi.

Hiru sektore garrantzitsuenei erreparatuz gero, ikusten da Ekipo-ondasunen sektorean bakarrik hazi zela saldo positiboa 2010-2018 urteen artean (% 23,5); Energia produktuek (% 67) eta Erdi-manufakturrek (% 18,5), aldiz, behera egin zuten.

6. grafikoa: Euskadiren eta Argentinaren arteko Kanpo-merkataritza (2010 - 2018)



Iturria: Eustat

17. taula: Euskadiren eta Argentinaren arteko nazioarteko merkataritzaren bilakaera (2016-2019)

	2016	2017	2018	2019	19/ 18ko %
ESPORTAZIOAK	78.907,76	131.603,86	112.098,16	85.281,77	% -24
INPORTAZIOAK	3.514,73	24.424,29	22.954,49	8.110,01	% -65
BALANTZA KOMERTZIALA	75.393,03	107.179,57	89.143,67	77.171,76	% -13

Iturria: Datacomex

18. taula: Euskaditik Argentinarako esportazioek Espainiako esportazioetan duten pisu erlatiboa, sektoreka

	2016-2019 GUZTIRA	2016	2017	2018	2019
Euskadik Argentinarako esportazioetan duen pisua sektoreka (%)	% 9,76	% 9,26	% 10,23	% 9,40	% 10,05
1 ELIKAGAIK, EDARIAK ETA TABAKOAK	% 1,04	% 1,34	% 0,93	% 0,61	% 1,46
2 PRODUKTU ENERGETIKOAK	% 24,69	% 2,88	% 0,33	% 44,44	% 0,21
3 LEHENGAIK	% 2,27	% 1,99	% 3,93	% 0,70	% 2,38
4 ERDI-MANUFAKTURAK	% 10,06	% 9,69	% 9,84	% 10,26	% 10,53
5 EKIPO-ONDASUNAK	% 15,20	% 16,28	% 17,46	% 12,44	% 14,83
6 AUTOMOBIL SEKTOREA	% 1,24	% 1,07	% 1,44	% 0,91	% 2,03



7 KONTSUMO-ONDASUN IRAUNKORRAK	% 5,06	% 6,46	% 3,15	% 2,53	% 10,38
8 KONTSUMOKO MANUFATURAK	% 1,72	% 2,72	% 1,78	% 1,08	% 1,81
9 BESTE MERKATU-GAI BATZUK	% 2,27	% 4,59	% 4,90	% 0,07	% 0,19

Iturria: Datacomex

Hala, ikusten da Produktu Energetikoeak (% 25), Ekipo-ondasunek (% 15) eta Erdi-manufakturrek (% 10) paper garrantzitsua izan dutela azken urteotan. Sektore energetikoaren nagusitasun hori hertsiki lotuta dago energia berriztagarriek "Renovar" programaren bitartez Argentinan izan duten *boom*-arekin. Programa horren barruan, 2018an 7.000 milioi USDeko 80 proiektu sinatu ziren eta, horri esker, energia sorkuntza asko hazi zen urtariletik (% 2) abendura (% 4,5). Hazkunderik handiena sektore eolikoan gertatu zen (% 43).

CIVEXen informazioaren arabera, une honetan badaude 186 enpresa noizbait Argentinara esportatu dutenak. Horietatik 16 Arabakoak dira, 121 Bizkaikoak eta 49 Gipuzkoakoak. Tamainari erreparatzen badiogu, ageri da Argentinara esportatu zuten konpainia guztien % 31k 50 langile baino gehiago dituztela (5 Arabakoak, 39 Bizkaikoak eta 13 Gipuzkoakoak).

6.2. Euskadiren posizionamendua

Euskal esportazioek % 0,22ko kuota ordezkatu zuten Argentinaren inportazioetan 2017an, eta 16. postuan kokatu ziren euskal esportazioen kuotari dagokionez. Nahiko posizio ona lortu zuten.

Aurreko atalean ikusi dugu Euskadik Espainiatik Argentinarako esportazioetan duen posizioa eta Euskadik Espainiako guztizko esportazioetan duen pisua antzekoak direla. Aipatzekoa da Euskadik pisu handia duela hainbat sektoretako Espainiako esportazioetan, hala nola, produktu energetikoetan, ekipo-ondasunetan eta erdi-manufakturretan.

Taula honek erakusten du zein sektoretan duen Euskadik kuotarik handiena, garraioa eta armamentua nabarmentzen direlarik gehienbat.

19. taula: Argentinarekiko merkataritzan garrantzia duten euskal sektoreak (2017)

MUGA-ZERGEN ATALA	%
XVII-Garraio materiala	% 5,62
XIX-Armak eta munizioak	% 2,09
99-Sailkatu gabeak	% 1,78
VIII-Larruak eta bere manufakturak	% 1,44
XXI-Artelanak	% 0,64
XV-Metalak eta bere manufakturak	% 0,61
XIV-Bitxiak eta bisuteria	% 0,54
XII-Oinetakoak eta osagarriak	% 0,43
IV-Elikagaiak	% 0,31
X-Papera eta bere manufakturak	% 0,23
XX-Askotariko merkatu-gaiak	% 0,19
XVIII-Optikako eta zehaztasunezko aparatuak	% 0,15
XVI-Material elektrikoa	% 0,13
III-Gantzak eta olioak	% 0,13
I-Animalia erreinuko produktuak	% 0,07
VII-Plastikoak eta kautxua	% 0,06
IX-Zura eta bere manufakturak	% 0,03
VI-Produktu kimikoak	% 0,03
XI-Oihala eta bere manufakturak	% 0,02



XIII-Zementuak eta beira	% 0,01
V-Produktu mineralak	% 0,00
II-Landare erreinuko produktuak	% 0,00

6.3. Aldebiko inbertsioak

Kontabilizatutako datuen arabera, 33 euskal enpresa daude Argentinan kokatuta. Logikoa den bezala, enpresa horiek ere jasan dituzte azken urteko gorabehera ekonomikoak. Langile murrizketak, salmenten jaitsiera, erabiltzen ez den gaitasun instalatua, e.a., horra azkenaldian nozitu dituzten arazo batzuk. Enpresa horietako gehienak (% 40) 90eko hamarkadan kokatu ziren Argentinan, eta bigarren alde garrantzitsua azken hamarkadan iritsi da (% 29).

Argentinan kokatutako enpresak sektore hauetakoak dira gehienbat: eraikuntza (8), energia berriztagarriak (4), aholkularitza (3) eta elektronikak (3). Gehienak produkzio (15) eta merkataritza (12) arloetako instalazioak dira, nahiz eta badauden zerbitzuetako batzuk ere (7), eta Buenos Aires hirian eta Gran Buenos Aires (lehen eta bigarren gerriko industrialak) inguruan kokatuta daude. Halaber, badira bakar batzuk Córdoba, Entre Ríos eta Mendoza probintzietan kokatuta.

20. taula: Argentinan eginiko euskal inplementazioak

	KOPURUA	PORTZENTAJEA
Ekoizpenekoak	16	% 48
Merkataritzakoak	17	% 52
Guztira	33	% 100
<i>Iturria: Agentziak egina</i>		

Argentinan kokatzeko prozesuei dagokienez, energia berriztagarrien sektorea eta 4.0 Industriarekin (robotika / mekatronika) lotutako arloak izan dira erakargarrienak azkenaldian.

Azkenik, eta Bureau Van Dick bulegoak emandako datuen arabera, Argentinako kapitala duen euskal enpresa bat baino ez dago.



7. SEKTORE NAGUSIAK

7.1. Ekarpena BPGari

Labur-labur aipatuko dugu lehen sektoreak sortzen duela Argentinako BPGaren % 10 eta esportazio guztien % 60. Bigarren sektoreak ekonomikoki aktiboa den biztanleriaren % 29 biltzen du, eta Buenos Aires probintzian kontzentratuta dago gehienbat. Jarduera industrialak nahiko garai txarrak bizi izan ditu. Batetik, sektoreko jardueran eragin handia izan dute barneko kostuen eta zerbitzuen tarifen igoerak, bai eta kontsumoaren beherakadak. Bestetik, balio-galerak, esportatzaileentzat onuragarria bada ere, eragin kaltegarria du barne merkatura zuzenduta dauden eta inportatutako osagaiak dituzten produktuetan. Azkenik, interes-tasa altuko finantzaketa dela medio, inbertsioa asko jaitsi da, batik bat, ETEen sektorean. Hirugarren sektoreari dagokionez, aipagarria da BPGaren % 56 inguruko ekarpena egiten duela eta, hain zuzen, berau dela lan-aukera gehien eskaintzen dituen, batez ere zerbitzuek izan duten gorakadagatik eta industrietako lan-eskaintzaren murrizketagatik.

Bukatzeko, aurreikusten da aurtengo urtea zaila izango dela Argentinarentzat, eta oso sektore gutxi mantenduko direla onik. Nekazaritzako sektorearekin lotutako adar industrialek handitzen jarraitu ahal izango dute, landa-eremuak ongi funtzionatzen jarraituko duelako, baina beste arlo gehienetan atzeraldia sakondu egingo da. Hazi egingo da lan-eskuan intentsiboak diren barneko merkaturako sektoreen gaineko babesak, eta etxetresna elektrikoak, oihalak, larruak eta jostailuak izango dira politika horren onuradunak.

21. taula: Sektore garrantzitsuenak / BPGa (2018)

SEKTORE EKONOMIKOA	PARTE-HARTZEA (%)
LEHEN SEKTOREA (nekazaritza, arrantza, basogintza)	% 8,86
BIGARREN SEKTOREA (industriak)	% 22,97
BIGARREN SEKTOREA (manufakturak)	% 12,69
HIRUGARREN SEKTOREA (zerbitzuak)	% 55,48
<i>Iturria: Munduko Bankua (MB)</i>	

22. taula: BPGaren osaera sektoreka (2019)

SEKTORE EKONOMIKO eta INDUSTRIALA	Milioi ARS	BPGaren %	Milioi USD	Bariazioa % e.i
A- Nekazaritza, abeltzantza, ehiza eta basogintza	53.123	% 9,19	843,22	% +1,33
B- Ehiza	2.417	% 0,42	38,37	% -0,04
C- Meatze eta harrobien ustiaketa	21.548	% 3,73	342,03	% +0,04
D- Manufaktura industria	108.007	% 18,68	1.714,30	% -1,02
E- Argindarra, gasa eta ura	12.147	% 2,10	192,81	% -0,05
F- Eraikuntza	21.214	% 3,67	336,73	% -0,17
G- Handizkako eta txikizkako merkataritza eta konponketak	82.696	% 14,30	1312,63	% -0,99
H- Hotelak eta jatetxeak	11.475	% 1,98	182,14	% 0
I- Garraioa eta komunikazioak	56.983	% 9,86	904,49	% -0,06
J- Finantza arloko bitartekaritza	25.476	% 4,41	404,38	% -0,47
K- Higiezin-, enpresa- eta alokairu-jarduerak	75.500	% 13,06	1.198,41	% -0,07
L- Administrazio publikoa eta defentsa, derrigorrezko gizarte segurantzako planak	33.298	% 5,76	528,54	% +0,01
M- Irakaskuntza	27.591	% 4,77	437,95	% +0,03



SEKTORE EKONOMIKO eta INDUSTRIALA	Miloi ARS	BPGaren %	Miloi USD	Bariazioa % e.i
N- Gizarte eta osasun zerbitzuak	23.973	% 4,15	380,52	% +0,01
O- Zerbitzuetako beste jardura batzuk (komunitarioak, sozialak eta pertsonalak)	18.161	% 3,14	288,27	% -0,04
P- Etxeko zerbitzua duten etxe pribatuak	4.538	% 0,78	72,03	% +0,03
Balio Erantsi Gordina oinarritzko prezioetan	578.148	% 100,00	9.176,94	% -1,46

Iturria: INDEC – kanbio-tasa 2019/12/31n, Argentinako Banku Nazionalaren kotizazio ofizialaren arabera (USD 1 = ARS 63)

23. taula: Argentinako manufaktura-industriaren osaera (2019)

SEKTOREA	Miloi ARS	Miloi USD	%
Manufaktura-industria	108.007	1.714,40	% 100
Elikagai eta edarien elaborazioa	29.838	473,63	% 27,63
Substantzia eta produktu kimikoen fabrikazioa	15.823	251,16	% 14,65
Metal arrunten fabrikazioa	8.660	137,46	% 8,02
Beste inon sailkatu gabeko makina eta ekipoen fabrikazioa	5.981	94,94	% 5,54
Metalikoak ez diren bestelako produktu mineralen fabrikazioa	5.347	84,87	% 4,95
Metalezko produktuen fabrikazioa, makinak eta ekipoa izan ezik	4.793	76,08	% 4,44
Kautxuzko eta plastikozko produktuen fabrikazioa	4.626	73,42	% 4,28
Koke, petrolio birfinduzko produktu eta erregai nuklearren fabrikazioa	3.926	62,32	% 3,63
Motordun ibilgailuen, atoen eta erdiatoien fabrikazioa	3.893	61,79	% 3,60
Paper eta paperezko produktuen fabrikazioa	3.582	56,85	% 3,32
Edizioa eta inprimaketa; grabazioen erreproduzioa	3.468	55,05	% 3,21
Arropa fabrikazioa; larruen akaberak eta tindaketa	3.369	53,47	% 3,12
Altzari eta koltxoien fabrikazioa; beste inon sailkatu gabeko manufaktura industriak	2.913	46,24	% 2,70
Oihalen fabrikazioa	2.346	37,24	% 2,17
Larruak ontzea eta akabera ematea; larruzko artikulua eta uhalen fabrikazioa, eta oinetakoak eta haien zatiak	1.733	27,50	% 1,60
Zur eta zurezko nahiz kortozko produktuen fabrikazioa, altzariak izan ezik; lastozko artikuluen eta material txirikordagarrien fabrikazioa	1.691	26,84	% 1,57
Irrati, telebista eta komunikazio ekipo eta aparatuen fabrikazioa	1.523	24,17	% 1,41
Beste inon sailkatu gabeko makina eta aparatu elektrikoaren fabrikazioa	1.448	22,99	% 1,34
Makina eta ekipoen konponketa, mantenimendua eta instalazioa	1.065	16,91	% 0,99
Medikuntza, optika eta zehaztasuneko tresnen fabrikazioa; ordularien fabrikazioa	869	13,79	% 0,80
Tabakozko produktuen elaborazioa	487	7,73	% 0,45
Bulegoko makinaren eta kontabilitate nahiz informatikako makinaren fabrikazioa	287	4,55	% 0,27
Beste inon sailkatu gabeko garraioko ekipoen fabrikazioa	206	3,26	% 0,19
Birziklapena	135	2,14	% 0,12

Iturria: INDEC – kanbio-tasa 2019/12/31n, Argentinako Banku Nazionalaren kotizazio ofizialaren arabera (USD 1 = ARS 63)

7.2. Merkatuko bolumenak

Argentina 44 milioi biztanleko eta errenta ertain-altuko merkatua da. Biztanle gehienak hiriguneetan bizi dira (% 90), milioi bat biztanle baino gehiago guztira, eta eros-ahalmena 30 eta 50 urte bitarteko adin tartean zentratzen da. Argentinako biztanleria osoaren ia heren bat bizi da Buenos Aireseko ingurune metropoliarrean.

Joan den abenduan, 58 produkzio-sektoreen % 59 inguruk jaitsierak jasan zituzten euren ekoizpen-mailetan, eta gainerako % 41ek urte arteko bariazio positiboak izan zituzten. Ekoizpen-mailaren jaitsiera hori argi islatzen da instalatutako gaitasunaren erabilpen-mailari dagokionez abenduan (% 56,9) baino maila txikiagoa izan zuten bloke sektorialetan, hala nola, tabako produktuetan (% 50,1), edizio eta inprimaketan (% 49,3), kautxu eta plastikozko



produktuetan (% 44,7), oihalezko produktuetan (% 41,1), industria metalmekanikoan -autoenean izan ezik- (% 40,0) eta automozio industrian (% 21,1).

Automozio sektorea: ez da egiten bertako diseinurik, soilik kanpoko garapenak txertatzen dira, eta hornitzaile nazionalak ez diote teknologia-ekarpen handirik egiten diseinuari, terminalak aplikatzen duten politika globalaren ondorioz. Argentinako merkatuan saltzen diren ibilgailu guztien % 38 bakarrik fabrikatzen dira bertan, eta kontuan hartzen badugu portzentaje horretatik % 30ak bakarrik dauzkala Argentinan ekoiztiko zatiak, horrek esan nahi du Argentinako auto-parkean % 12 baino gutxiago direla Argentinan ekoiztiko zatiak dituzten autoak. 23.a da mundu mailako ekoizleen zerrendan.

Autozation sektorea: automozio terminalen hornikuntzarako politika globalen eta sektorean aplikatzen diren sustapen-erregimenen menpe dago. 400 enpresa inguru biltzen ditu, eta enplegu industrialaren ia % 4a ordezkatzeko du. % 11ko parte-hartzea dauka BPG industrialean, eta bere salmentak 5.750 milioi USD ingurukoak dira.

Siderurgia: Argentinako altzairu industriak fabrikatutako produktu-ildo guztiek beherazko joera izan zuten 2019an. Altzairu gordinak urte arteko % 10eko beherakada izan zuten, beroko laminatuek % 10,5ekoa eta hotzeko laminatuek % 8,5ekoa. Ez da espero industriaren berehalako susperraldirik, eta ez bakarrik arazo estazionalengatik, baita ere merkatuen egoeragatik. Urteko ekoizpena 4.279 tonakoa izan zen, eta kontsumoa, berriz, 3.919 tonakoa.

Eraikuntza: sektore honek ere igarri du Argentinak bizi duen krisi larria, eta INDECen datuen arabera, % 7,9ko beherakada izan zuten 2019an. Hala, 2018an % 0,8 hazi bazen ere, 2019an jaisten hasi zen. Kontsumoaren urte arteko beherakada handienak arlo hauetan gertatu ziren: asfaltoa (% 47), hormigoi elaboratua (% 26), granito eta karezko mosaikoak (% 20,6), igeltsuzko xafak (% 10,9) eta portland zementua (% 9,4). Bestalde, eraikuntzarako baimendutako azalera 2018an baino % 11 handiagoa izan zen; hala, 2019ko abenduan azken bi urteetako zifra handiena erdietsi zen, 905.458 m²ko azalera baimendura iritsi zelarik.

Energia Berriztagarriak: 2015 eta 2019 artean, energia berriztagarrien sorkuntza % 2tik % 7ra igo zen. Energia berriztagarriak sortzen dituzten 131 parke daude martxan (gehienak eolikoak) eta beste 70 eraikuntza-prozesuan (7 laster inauguratuko dira), 4.256 milioi USD inguruko inbertsioarekin. Gaur egun, 5,5 milioi etxek jasotzen dute iturri berriztagarrietatik ateratako energia. Momentuz, gobernu berriak ez du erakutsi lizitazio publiko handiak egiten jarraitzeko interesik. Izan ere, badaude epe laburrean inbertsio berriak ez erakartzeko hainbat arrazoi: argindar garraioaren merkatua saturatuta dago, herrialde-arriskua handia da eta hor dago zorraren birnegoziarioa ere.

Makina-erreminta: burdinaren sektoreak 14.000 enpresa inguru barne hartzen ditu, hasi pertsona bakarrek saltokietatik eta 150 langile baino gehiago dituzten konpainietara, guztira 34.000 pertsona enplegatzen dituelarik. Sektoreko enpresen % 90 inguru auzoetako burdindegia dira; aldiz, gainerako % 10a burdindegia industrialak dira, eta % 1 handizkariak. Enpresen banaketa geografikoak lotura estua du biztanleriaren dentsitatearekin eta garapen industrialarekin; hala, salmenta-puntu gehienak herrialdearen erdigunean (hots, Buenos Aires, Córdoba eta Santa Fe) daude.

Argiztapen sektoreari dagokionez, Argentina da Latinoamerikan elektronika eta luminoteknika arloak gehien garatu dituen herrialdea, eta aurrerapen teknologiko nazionalaren motor garrantzitsuenetako bat da. Argentinako produktuek balio erantsi handia dute eta nazioarteko kalitate estandarrek betetzen dituzte. Sektore honetan 2.200 enpresa daude, 5 kontinenteetako 60 herrialdetara esportatzen dutenak, eta gaitzuntza tekniko handiko 60.000 langiletik gora enplegatzen dituztenak.

Nekazaritzako industria: sektore honek Argentinako Barne Produktu Gordinarekin % 7,5 sortzen du, eta 750.000 lanpostu erregistratu sortzen ditu 80.000 enpresa inguruan. Nazioarteko merkataritzaren terminoetan, nekazaritzako industriak mundu osoko trukeen % 10 baino gutxiago ordezkatzeko du, baina Argentinaren kasuan, kanpo salmenten % 60raino iristen da. Hori dela eta, herrialdea 11. postuan kokatuta dago duela 20 urtetik, mundu osoko eskaeraren % 3 inguru hornitzen duelarik. Halere, sektore honetako jarduerak % 3,1eko jaitsiera izan du azken urtean.



Meatzaritza: sektore honek % 4,2ko hazkundea izan zuen iaz. Argentinako meatzaritza-industriak bi hamarkada bete ditu dagoeneko. Administrazio Zentralak erabaki du meatzaritza herrialdeko motor ekonomiko garrantzitsuenetako bat dela, eta 30.000 milioi USDetik gorako inbertsio aukerak proiektatu dira sektorerako.

Oil & Gas: Shalegas eta Shaleoil produktuen potentzialari buruzko estimazioek panorama berri bat ekarri dute energiaren sektorera. Estatu Batuetako Energy Information Administration (EIA) erakundearen arabera, Argentina munduko bigarren potentzia da shalegas sektorean, eta laugarrena shaleoil sektorean. Baliteke baliabide ez konbentzionalen garapenak 40 bider handitzea gaur egungo gas erreserbak, eta 10 bider handitzea petrolio erreserbak, izugarri haziko delarik ekoizpena. Industria heldua da, Argentinako enpresa handiek eta atzerriko hobi-operatzaile eta birfindegiek osatzen dutena, ehunka intsumo eta zerbitzu hornitzaileekin batera (ETEak barne). Azken urtean, sektore honen jarduera % 1,4 hazi da.

7.3. Negozio-aukerak


Argentina Latinoamerikako laugarren ekonomia handiena da, eta ia 44 milioi kontsumitzaileko barne merkatua dauka, oso kontzentratua dagoena gune zehatz batzuetan (biztanleriaren % 92 hirietan bizi da eta % 35 Buenos Airesen, zehazki). Horrez gain, muga-zergarik gabeko sarbidea du Mercosur eremura, hau da, 250 milioi kontsumilerengana. Argentinako gobernua hainbat neurri hartzen hasi zen 2015ean inbertsioetarako giroa hobetzeko eta inbertitzaileen konfiantza berreskuratzeko; halere, zenbait sektoretan badaude oraindik gabedia batzuk, ez direnak batere erakargarriak inbertitzaileentzat.

Hauek dira epe ertain eta luzera inbertitzeko aukera gehien eskaintzen dituzten sektoreak: elikagaien industria (produktu organiko, ekologiko eta gourmet-en eskaera gero eta handiagoa da), mahastizaintza eta ardogintza, automozioa eta meatzaritza. Bestalde, higiezinaren sektorea (bizilekuen eraikuntza), turismoa eta aisialdia dira azken urteotan gehien hazi direnak. Halaber, aukerak sortuko dira sektore hauetan: azpiegiturak, ekipo-ondasunak, kimika eta petrokimika, hondakinen kudeaketa eta energia berriztagarriak (eolikoa, eguzki energia eta hidroelektrikoa nagusiki, 10.000 Mw gehiago sortzeraino 2025era bitartean). Petrolio eta gasaren sektoreek ere garapen handia dute eta izango dute, eta aukera ugari eskaintzen dituzte epe labur eta luzerako. Halere, kontuan hartu behar da Estatuaren interbentzionismoa gero eta handiagoa dela, eta horrek oztopatu egiten duela sektore estrategikoetan inbertitzea, adibidez, zerbitzu publikoetan.

Hona hemen International Trade Center-ek emandako datuak, non Argentinara esportatzeko potentzial handiena duten 10 produktuak ageri baitira. Sektoreka banakatuta, hauek dira garrantzitsuenak: automozioa (motordun ibilgailuak, ibilgailuen zati eta osagarriak), farmazia, ekipo elektrikoak, olio-haziak, produktu mineralak, produktu kimikoak eta makineriak. Egungo esportazioen eta balizko esportazioen arteko alderik handiena motordun ibilgailuetan ikusten da; horrek esan nahi du posible dela 2,6 mila milioi USD gehiagoko esportazioak egitea Argentinara, nahiz eta dagoeneko erdietsia duen esportaziorako potentzialaren % 53a. Bestalde, "ibilgailuen zati eta osagarriak" arloa % 55ean ustiatua dago, eta aukera ematen du 857 milioi USD gehiagoko negozioak egiteko. Aldiz, hauek dira potentzial handiena duten sektoreak: soja-babak (potentzialaren % 21 baino ez da ustiatu, eta inpaktua 1,2 mila milioi USD handiagoa izan liteke) eta energia elektrikoa (potentzialaren % 28 bakarrik dago ustiatuta, eta 998,6 milioi USDeraino iritsi daiteke).



7. grafikoa: Argentinara esportatzeko potentzial handiena duten produktuak



Iturria: ITC

Hauk dira Argentinara esportatzeko aukera gehien duten herrialdeak: Txina, Brasil eta Estatu Batuak. Txinak du esportazio potentzialen eta egungo esportazioen arteko alderik handiena. Horrek esan nahi du, 4.000 milioi USD gehiagoko esportazioak egin ditzakeela (bere esportazio potentziala 13,9 mila milioi USDekoa da, eta gaur egun 9,9 mila milioi USD esportatzen ditu). Espainia 6. postuan dago (Alemania eta Mexikoren atzetik). Bere potentzial esportatzailea 2,1 mila milioi USDekoa da, eta gaur egun 1,2 mila milioi USD esportatzen ditu.



8. NAZIOARTEKO HARREMANAK

8.1. Nazioarteko kidesunak

Bere kanpo-politika baliatuz, Argentinak ahalegina egin du nazioarteko eta eskualde mailako antolakunde garrantzitsuenetako kide izateko eta, horrela, herrialde periferiko izateari uzteko. Hala, erakunde hauetako kide da: Nazio Batuen Erakundea (NBE), Munduko Merkataritza Erakundea (MME), Hegoaldeko Merkatu Komuna (MERCOSUR), Hego Amerikako Nazioen Batasuna (UNASUR), Latinoamerika eta Karibeko Estaturen Komunitatea (CELAC) eta Amerikako Estaturen Antolakundea (AEA). Halaber, parte-hartze aktiboa izan du hainbat hitzarmen-taldetan, hala nola, Gailur Iberoamerikarrean, Hogeien Taldean (G20) eta G77+Txina taldean.

Argentinak paper garrantzitsua du Elikadura eta Nekazaritzako Nazio Batuen Erakundean (FAO), Garapen Industrialerako Nazio Batuen Erakundean (ONUDI), Jabetza Intelektualaren Munduko Erakundean (OMPI) eta Merkataritza eta Garapenari buruzko Nazio Batuen Konferentzian (UNCTAD), besteak beste. Bi lehentasun nagusiren gainean oinarritzen du bere kanpo-politika:

Latinoamerikan, Hegoaldeko Merkatu Bateratuaren (MERCOSUR) truke libreko eremuko kide da, non bereziki garrantzitsua den Brasilekin duen harremana, bere bizilagun eta bazkide komertzial garrantzitsuena baita. Era berean, Argentina Pazifikoko Aliantzako estatu behatzaile bihurtu da, eta Latinoamerika eta Karibeko Estaturen Komunitatearen (CELAC) herrialde latinoamerikarren arteko ituna bultzatzen du.

Malvina uharteen subiranotasuna aldarrikatzen du, Nazio Batuen Erakundeak emandako Ebazpenak defendatzen ditu eta gogortu egin du uharteetako biztanleek baliabide naturalak (hidrokarburoak, arrantza) ustiatzearen aurkako araudia.

Aipatzekoa da Argentinak G20 taldeko txandakako presidentetza izan zuela 2018an; denbora horretan hainbat bilera antolatu zituen, eta azaroaren 30ean eta abenduaren 1ean Estatu eta Gobernu buruen Gailurra egin zen Buenos Airesen, bere nazioarteko irekiera sendotu zuelarik. Latinoamerikatik kanpo, azken urteetan harreman komertzialak estutu ditu Txina, Errusia eta Indiarekin. Europar Batasunarekiko harremanak Lankidetzarako Akordio Markoaren (1990) baitan garatzen dira.

24. taula: Kide den nazioarteko erakundeak eta ekonomia eta merkataritza arloetako erakundeak

ORGANISMOA
ALADI – Latinoamerikako Integrazio Elkartea
BID – Amerika arteko Garapenerako Bankua
BM – Munduko Bankua
UNCTAD – Merkataritza eta Garapenerako Nazio Batuen Konferentzia
CIC – Plata Haraneko Herrialdeen Koordinazio Batzordea
CEPAL – Latinoamerikako eta Karibeko Nazio Batuen Batzorde Ekonomikoa
CAF – Latinoamerikako Garapenerako Bankua
FMI – Nazioarteko Diru Funtza
MERCOSUR – Hegoaldeko Merkatu Komuna
OEA – Amerikako Estaturen Antolakundea
OMC - Merkataritzaren Munduko Erakundea
SELA – Latinoamerikako Sistema Ekonomikoa
FONPLATA – Plata Haranaren Garapenerako Finantza Funtza
UNASUR – Hego Amerikako Nazioen Batasuna
PNUD – Nazio Batuen Garapenerako Programa
FGTLAT – Hego Amerikako Finantza Ekintzarako Taldea
OIT – Lanaren Nazioarteko Antolakundea




8.2. Merkataritza-akordioak

1990etik hona, Argentinak 20 bat akordio komertzial sinatu ditu nazioarteko Estatu edo bloke desberdinekin (horietatik 10 2002-2010 bitartean). Mercosur-en barruan 13 akordio hitzartu zituen, horietatik 6 aldebikoak, eta gainerakoak MMEn sartzeraz bideratuak.

Azken bi urteotan lan handia egin da lehendik dauden akordioak sakontzeko, besteak beste, MERCOSUR-Kolonbia Konplementazio Ekonomikoko Akordioa (ACE 72), zeinari esker Argentinak 42.000 auto esportatu ahal izango baititu urtean. Argentinaren eta Txileren arteko akordio ekonomiko berri bat ere negoziatu da, MERCOSUR-Txile Akordioaren (ACE 35) esparruan. Akordio berri horrek diziplina berriak barne hartzen ditu, eta beste batzuk sakontzen ditu, hala nola, zerbitzuak, inbertsioak, gobernu erosketak, ingurumena, generoa eta telekomunikazioak. Bestalde, lanean ari da Mexikorekin Konplementazio Ekonomikoko 6. Akordioa (ACE) zabaltzeko. Halaber, azken belaunaldiko aldebiko inbertsio itunak hitzartu dira Qatar eta Arabiar Emirerri Batuekin. Horrez gain, akordioak negoziatzen ari da Japonia, Singapur, India, Mexiko, EFTA eta Kanadarekin (MERCOSUR blokearen barruan).

8. grafikoa: Argentinak sinatutako akordioak eta kanpo merkataritzarekin duen harremana - Iturria: El Cronista Comercial (Argentina)



Aipagarria da, 6 urtez kanporatua izan ondoren, Argentina 2017an itzuli zela Estatu Batuetarako esportazioetarako Lehetasunen Sistema Orokorrera. Bestalde, Estatu Batuek altzairu eta aluminio inportazio globalei ezarri zizkien muga-zerga gehigarrien esparruan, Argentina izan zen bere esportazioen zati handi batentzat muga-zergarik gabeko sarbidea mantendu zuen lau herrialdeetako bat.

Azkenik, atal honetan nabarmentzekoa da, batetik, Mercosur blokeak eta Europar Batasunak 2019ko ekainean lortutako hitzarmena, Mercosur-ek hirugarrenekin hitzartzen duen inpaktu komertzial handiko lehen akordioa. Mercosur-en eta Europar Batasunaren arteko Elkarte Estrategikoaren bidez 800 milioi biztanleko merkatu bat osatzen da, munduko BPGaren ia laurden bat hartzen duena eta ondasun eta zerbitzuen 100.000 USDetik gorako balioa duen aldebiko merkataritza gauzatzen duena. Akordio hori mugarri bat da Argentinaren nazioarteko integrazioarako, ondorio hauek



guztiak ekarriko dituelako: eskualdeetako ekonomien esportazioak handitzea, enpresen balio-kate globalerako parte-hartzea sendotzea, inbertsioak erakartzea, transferentzia teknologikoko prozesua azkartzea eta ekonomiaren lehiakortasuna handitzea. Akordio hau bi blokeetako herrialde kideek berretsi behar dute oraindik. Bi urte barru sartuko litzateke indarrean eta hamar urte betetakoan lortuko litzateke esportazioen % 92ren liberalizazioa.

Oro har, muga-zergak desagertuko dira Mercosur-eko esportazioen % 93rentzat eta gainerako % 7ak lehentasunezko tratua izango du. Zehazki, hauek izango dira ondasun industrialek merkatura sartzeko izango dituzten baldintzak:

- EBk konpromisoa hartu du merkataritzaren % 100 liberalizatzeko; Mercosur-ek % 90 liberalizatuko du;
- Mercosur-etik EBra esportatzen diren produktu industrialen % 80k ez du muga-zergarik ordaindu beharko hemendik aurrera;
- Mercosur-ek 15 urterainoko epea izango du sektore garrantzitsuak gradualki liberalizatzeko;
- Horrek industria barruko merkataritza bultzatuko du, murriztu egingo direlako intsumo eta kapital-ondasunentzako muga-zergak.

Nekazaritza-industriako ondasunei dagokienez, nabarmentzekoak dira hauek:

- Argentinak EBra esportatzen dituen ondasunen % 63 nekazaritzako ondasunak dira;
- EBk Mercosur-eko nekazaritzako inportazioen % 99 liberalizatuko du (% 81,7k ez dute muga-zergarik izango eta % 17,7k kuotak edo lehentasun finkoak izango dituzte). Soilik 100 produktu inguru geldituko dira multzo horretatik kanpo.
- Akordioak % 14ko gehienezko alikuota ezartzen du (gaur egun % 28koa da) soja-multzoko produktuentzat.

Zerbitzu sektoreak potentzial handia du Argentinarentzat, hirugarren sektore esportatzaile handiena baita sojaren eta automozioaren ondotik. Gaur egun, ezagutzan oinarritutako zerbitzuen esportazioen heren bat EBra bideratuta dago. Aldiz, Europak egiten dituen Atzerriko Zuzeneko Inbertsioen % 2an bakarrik hartzen du parte. Zerbitzu-emateen akordioari esker, kontraparteen merkatuetara sartu ahal izango dira enpresa nazionalen baldintza berdinetan.

Bestalde, urte bereko abuztuan bukatu ziren MERCOSUR-en eta Merkataritza Libreko Europako Elkartearen (EFTA) -hots, Islandia, Liechtenstein, Norvegia eta Suitzak osatutako blokearen- artean merkataritza libreko akordio bat lortzeko negoziazioak. Akordio horrek bere baitan hartzen ditu bai muga-zergekin eta bai araudiekin lotutako gaiak: zerbitzuak, inbertsioak, gobernu erosketak, merkataritza eta mugetako lankidetzak ahalbidetzea, merkataritzari jarritako oztoko teknikoak, neurri sanitario eta fitosanitarioak, garapen jasangarria, lehia, defentsa komertziala eta jabetza intelektuala.

Ondasunen merkaturako sarbideari dagokionez, MERCOSUR-ek EFTAko herrialdeetara esportatu ditzakeen produktuen % 97k baino gehiagok lehentasunezko tratua jasoko dute eta, aldi berean, EFTAko kideek manufakturako produktu ia guztien muga-zergak kenduko dituzte. Garrantzitsua da aipatzea Suitzak eta Norvegiak aldebiko kuotak emango dizkiotela MERCOSUR-i lehen aldiz; era berean, EFTAko herrialdeek muga-zergarik gabeko sarbidea eskainiko diete MME-n zehaztutako nekazaritzako kuota gehienei.



➔ 9. ASKOTARIKO ARRISKUAK

Munduko Bankuaren arabera, 1950etik hona, Argentinak denboraren % 33 atzeraldian eman du. Inflazioa % 50etik gorakoa izan zen 2019an, eta itxuraz, pesoak merkatu gorakorretako emaitza okerrenak izango ditu laugarren urtez jarraian. NDFk aurreikusi du inflazioa murrizten joango dela urtez urte: 2019an % 52,9, 2020an % 45 eta 2021ean % 32,3. BPGarekiko zorra bikoiztu egin zen Macri presidente ohiaren agintaldian, % 93ra iristeraino (2004tik izandako maila handiena), eta ziurgabetasun handia dago Argentinak zor hori ordaintzeko duen gaitasunaren inguruan.

9. grafikoa: Argentinako herrialde-arriskuaren bilakaera (1999-2020)



Moody's agentziak jaitsi egin zuen Argentinak epe luzera tokiko zein atzerriko txanponean zor jaulkitzaile gisa duen kalifikazioa, argudiatuz "hartzekodun pribatuek seguruenik galera handiak izango dituztela zorra berregituratzeko prozesuaren ondorioz". Agentzia horren iritziz, aurreikuspenak negatiboak dira, krisi ekonomiko eta finantzarioak (Covid-19aren ondorioz okerrera egin duenak) izango dituen ondorioengatik. Testuinguru honetan, gobernuak bere baliabideak berrorientatu beharko ditu sektore ahulenei laguntzeko, eta datozen urteetan ezingo ditu bete zorraren obligazioak. Horregatik, Argentinak "Ca" gradua jaso zuen, eta horren arabera, inbertsiogileek % 35 eta % 65 arteko galerak izan ditzakete. Nota jaisteko hainbat arrazoi hartu ziren kontuan: merkatuetarako sarbide eza, likidezia-estresa pandemiagatik, ordainketa epeen luzapena, interes-tasa baxuagoak eta kapital kopuru murriztagoak.

Bestalde, Fitch Ratings agentziak ere "CC" mailara murriztu zuen bono subiranoen kalifikazioa, egoera konplikatuan dagoen zorraren berregituraketa islatzen dutelako. Pandemiak gaur egungo krisia sakonduko du seguruenik, negozioak asko luzatzen badira handitu egingo baita ordainketak eteteko arriskua.

Bestalde, S&P agentziak ere murriztu egin zuen herrialdearen kalifikazioa. COVID-19aren krisiak areagotu egin ditu premia eta baliabide fiskalak. Horren ondorioz, gobernuak berrantolatu egin behar izan ditu aurtengo finantza arloko plangintza eta aurrekontuetako lehentasunak. Hala, bereizi egin du atzerriko txanponeko bonuei Argentinako legearekin eta atzerriko legearekin ematen zaien tratua, eta zor horren gaineko kapital eta interesen ordainketa atzeratu du 2020ko abendura (edo ahal bada, lehenagoko data batera). Horregatik, agentziak SD kalifikaziora (ez-betetze selektiboa) jaitsi dio nota.



25. taula: Kreditu-kalifikazioak

ARRISKU KALIFIKATZAILEA	EGUNGO NOTA	AURREKO NOTA
Moody's	Ca (negatiboa) / 2020ko apirila	Caa (berrikuspen prozesuan) / 2019ko abuztua
S&P	SD / 2020ko apirila	CCC- (negatiboa) / 2020ko urtarrila
Fitch	CC / 2020ko apirila	RD / 2019ko abedua

26. taula: Kreditu-profila eta COFACEn balorazioa

HERRIALDE A	HERRIALDE AREN ARRISKUA	NEGOZIOETARAK O GIROA	OHARRAK
ARGENTINA	C	B	INDAR-GUNEAK
			<ul style="list-style-type: none"> • Nekazaritzako ekoizle handienetako bat da (batez ere soja, garia eta artoa) • Petrolio eta eskisto gas bituminosoko erreserba handiak ditu • Eskualdeko batez bestekoa baino hezkuntza-maila handiagoa du • Eskualdeko batez bestekoa baino <i>per capita</i> BPG handiagoa du
			AHULUNEAK
			<ul style="list-style-type: none"> • Kontu fiskal ahulak eta zorraren jasangarritasunaren inguruko kezkek • Kapitalaren gaineko kontrola indartu da dibisa-erreserben gainbehera geldiarazteko. • Nekazaritzako produktuekiko eta klima baldintzekiko menpekotasuna. • Inflazio itsaskor eta handia; interes-tasen maila ordainezina • Botila-lepoak azpiegituretan



10. ONDORIOAK

Hedaduraz, Argentina da Hego Amerikako bigarren herrialde handiena, kontinenteko laugarrena eta munduko zortzigarrena, eta Latinoamerikako indize altuenak dauzka, besteak beste, giza garapenean, globalizazio portzentajeon, *per capita* BPGan, hazkunde ekonomikoan eta bizi-kalitatean. Ondorioz, esan liteke eskualdeko 2. ekonomia garatuena dela.

Hainbat urtetan izandako merkataritza- eta kanbio-murrizketen ondorioz ezin izan dira asetu eskaera eta hornikuntza, eta, beraz, tokiko ekoizpenaren eskaintzak lehiakortasuna galdu du (bai prezioetan eta bai kalitatean). Macri-ren zentro eskuineko gobernuak ekonomia liberalizatu zuen, eta horrek aukerak sortu zituen hainbat sektoretan. Orain, Alberto Fernández-en gobernu peronista-kirchnerista berriarekin, berriro ezarriko dira murrizketa horiek, zenbait sektoretako ekoizpen nazionala bultzatzeko.

Hazkunde ekonomikoaren aldakortasunak eta erakundeek ezarritako oztopoek eragotzi egin dute herrialdearen garapen normala. Hiriguneetako pobrezia oso handia da oraindik, biztanleriaren % 35etik gorakoa, eta haurren pobrezia-tasa (14 urtetik beherakoa) % 52 baino handiagoa da.

2018ko gorabehera finantzarioek inpaktu handia izan zuten Argentinan; beharrezkoa izan zen plan ekonomikoa berrikustea eta Nazioarteko Diru Funtsaren (NDF) laguntza-programa bat eskatzea. Programa horren bidez 57.000 milioi USD esleitu ziren, zeintzuen helburu nagusia izan baitzen kontu publikoak egonkortzea, oreka fiskal primarioa lortzeko 2019aren amaieran. Halere, 2019ko abuztuan lehertutako aldakortasun makroekonomikoak programa hori eten zuen, eta Argentina hartzekodun pribatuekiko zorra birnegoziatzen hasi zen. Horregatik, gaur egungo egoera ekonomikoaren oreka nahiko prekarioa da. Argentinako pesoak bere balioaren % 68 galdu du 2018ko apiriletik. Inflazioa % 50etik gorakoa da, eta BPGa % 2,5 murriztu ondoren 2018an, ekonomia % 2,2 gehiago jaitsi zen 2019an. Aurreikuspenen arabera, ekonomia % 9,9 murriztuko da 2020an Covid-19aren krisiagatik, eta % 3,7 suspertuko da 2021ean.

Argentina **aberatsa eta oparoa da baliabide naturaletan**, esportaziora zuzendutako nekazaritza-sistema moderno bat du eta baita ere oinarri industrial garrantzitsu bat (halere, hori guztia ez da nahikoa eredu ekonomiko integratzaile eta inklusibo bat izateko). **Industriako sektore** garrantzitsuenen artean aipatzekoak dira: elikagai prozesatuak, edariak eta tabakoa; motorrak eta autoen zatiak; oihalak eta larruak; biodieselak; produktu farmazeutikoak; altzairua, aluminioa eta burdina; nekazaritzako makineria; etxetresna elektrikoak eta altzariak. **Biztanleriaren hezkuntza-maila oso altua da.** Era berean, software eta zerbitzu informatikoen industriak etengabeko garapena izan du Argentinan. Une honetan, IT sektoreko ekoizpen nazionala da dinamismo handiena duena eta, horregatik, garrantzi estrategiko handia du Argentina osoaren garapenerako. Industria hori Buenos Aires hirian zentratuta dago nagusiki, bai eta Argentinan kokatutako eskualde mailako gune, kluster eta erakundeetan. Gune horiek hainbat ezaugarri komun dituzte: giza baliabide kualifikatuak, unibertsitatearen garrantzia arlo teknologikoko ekintzaileen “haztegi” modura, eta enpresen arteko lankidetzarako bokazio handia.

Datu ofizialen arabera, Argentinak 300.000 milioi USD baino gehiagoko **inbertsio-aukerak** eskainiko ditu datozen 10 urteetan. Bereziki interesgarriak dira esportaziora zuzenduta dauden sektoreak (zerbitzu globalak, nekazaritzako industria, energia, meatzaritza eta turismoa), baina baita ere horiek inbertsioarekin lotutako balio-kateak (azpiegitura logistikoa, metalmekanika, sare digitalak eta hotel sektorea). 2019aren hasieran, gobernuak 700 milioi USDeko lizitazioak egin zituen meatzaritza, petrolio eta gas eta osasun sektoreetan. Energia berriztagarrien arloan, 126 proiektu daude garapen bidean, 6.800 milioi USD baino gehiagoko inbertsioarekin. Litoaren eta beste metal batzuen (kobrea, zilarra eta urrea) sektoreetan 340 proiektu daude exekuzio-prozesuan, Argentinak 750.000 km² baitaizka potentzial handiko eremuetan. Sektoreak 13.000 milioi USDetik gorako lizitazioak egin ditu 2015etik, eta inbertitzaileen artean interes gehien pizten duen bigarren jardura da, petrolio eta gas sektorearen atzetik. Nekazaritzako industriaren sektoreari dagokionez, inbertsioak egin ziren ongari eta intsumoen ekoizpenean.



Nazioarteko merkataritzaren % 72a manufakturatutako ondasunetan oinarritzen da, eta industria eta zerbitzuak lotzen dituzten ukiezinek gero eta garrantzi handiagoa dute. 2017an buru eman zitzaion esportazioen sei urteko jaitziera-aldiari, eta 2018an hazten hasi ziren, halere, Argentinaren mundu mailako salmentak 2011koak baino % 29,6 txikiagoak dira (urte hartan 83.000 milioi USD inguruko gailurra jo zutelarik). 2019an, superabit komertziala 15.990 milioi USDekoa izan zen (2012tik izandako handiena), batez ere inportazioek behera egin dutelako Argentinak bizi duen testuinguru ekonomikoaren ondorioz. Hauek dira bere bazkide komertzial garrantzitsuenak: Brasil, EB, Txina eta AEBak.

Bestalde, Espainia Argentinaren 9. bezeroa da. Espainiako esportazio-hartzaileen artean hamahirugarrena da Argentina, eta Espainiaren hornitzaileen zerrendan 42. postuan dago. Inbertsioei dagokienez, Espainia da Argentinaren atzerriko bigarren inbertitzaile handiena, Estatu Batuen atzetik.

Euskal enpresak beti egon dira interesaturik Argentinan, eta 2020an 33 euskal ezarpen daude han kokatuta, gehienbat Eraikuntza, Energia Berriztagarri, Aholkularitza eta Elektronika sektoreetakoak.

Azkenik, eta Covid-19ari dagokionez, gobernu argentinarrak osasunari eman zion lehentasuna, eta birusaren hedapena murriztera bideratu zituen bere tresna garrantzitsuenak. Derrigorrezko berrogeialdiak (martxoaren 20an hasi zena) are beherakada handiagoa eragin zuen ekonomian. Egoera hori ikusirik, Gobernuak neurri-sorta bat prestatu zuen sektore kalteberenei diruz laguntzeko. Horregatik, gobernuak mila milioitik gora ARS bideratu ditu pandemiaren kolpea jasan duten enpresei eta familiei laguntzera. BCRAk argitaratutako azken txosten ekonomikoen arabera, aurreikusten da BPGak % 12ko jaitziera izango duela, % 40,7ko urteko inflazioa erregistratuko dela abenduan eta defizit fiskala % 6,3koa izango dela 2020an.

Joan den ekainaren 26an derrigorrezko isolamendu sozial prebentiboa (ASPO) agindu zen seigarren aldiz, eta indarrean egon da uztailaren 17ra arte; hala, berrogeialdi egoera martxoko hasierako fasera itzuli zen. Bereziki, Buenos Aireseko metropolialdean (AMBA) ari dira neurriak hartzen, eskualde horretako biztanleriaren dentsitatea handia baita. Herrialdeko gainerako eskualdeetan, berrogeialdiko 5. fasera edo “prebentziozko eta nahitaezko urrutze soziala (DISPO)” izenekora pasatu dira. Fase horretan –“normaltasun berria” deitzen diote– tabernak eta gimnasioak irekitzeko aukera dago eta bilerak egin daitezke. DISPO egoeran dagoen eremuak herrialdearen % 85 hartzen du; ASPO egoeran dagoen eremuak, berriz, % 15 besterik ez.

AMBA eremuan (Buenos Aires hiria eta Buenos Airesko 40 herri hartzen ditu) 14,8 milioi lagun bizi dira (Argentinako populazioaren % 37), eta BPGaren % 48 sortzen du. Uztailaren 17an, 120 eguneko berrogeialdira iritsiko da eremu hori, eta urtearen % 60a konfinatuta pasatua izango du, presidentetzaren zenbait dekretuk hala eskatuta. Zenbait ekonomialari eta aholkulariren arabera, Argentinako ekonomia % 6,1 erori da. Hain zuzen, probintzia hauetan izan da beherakada handiena: Córdoba (% -9), Buenos Aires (% -8,6), San Juan (% -8), Tierra del Fuego (% -8) eta Buenos Aires hiria (% -8).

Geroz eta aukera gehiago dago ASPO egoera abuztura edo are gehiago luzatzeko. Ondorioz, ekonomialariak etengabe ari dira aurreikuspenak aldatzen. Zaila da egoeraren ondorio sozialak –batez ere, lanarekin lotutakoak– neurtzea, baina guztiek diote, zalantzarik gabe, herrialdearen egoera sozio-ekonomikoak okerrera egingo duela. Aholkulari nagusien arabera, soldaten jaitzierak eta inflazioak % 45 edo 50era eraman dezakete pobreziaren indizea. Horrek esan nahiko luke ia herrialdearen erdia pobrezian egongo litzatekeela, eta *per capita* sarrerak duela 50 urtekoen berdinak izango liratekeela.



11. ERREFERENTZIAK

- Argentinako Inbertsio eta Nazioarteko Merkataritza Agentzia (2020ko maiatza): Argentinan inbertitzea. <https://www.inversionycomercio.org.ar/invertir-en-argentina>
- Argentinako Inbertsio eta Nazioarteko Merkataritza Agentzia (2020ko maiatza): Txostenak: <https://www.inversionycomercio.org.ar/informes>
- Argentinako Inbertsio eta Nazioarteko Merkataritza Agentzia (2020ko maiatza): Inbertitzeko sektoreak. <https://www.inversionycomercio.org.ar/sectores-de-inversion>
- Argentinako Errepublikako Banku Zentrala (2020ko maiatza): Estatistikak: “Relevamiento de Expectativas del Mercado”: http://www.bcra.gov.ar/PublicacionesEstadisticas/Relevamiento_Expectativas_de_Mercado.asp
- Argentinako Errepublikako Banku Zentrala (2020ko maiatza): Moneta-politikari buruzko Txostenak: http://www.bcra.gov.ar/PublicacionesEstadisticas/Informe_politica_monetaria.asp
- Munduko Bankua (2019): Adierazleak: <https://datos.bancomundial.org/indicador>
- Argentinako Altzairuaren Ganbera (2020ko maiatza). Prentsa-oharrak. <http://www.acero.org.ar/comunicados-cifras-2019/>
- CIVEX (2020ko maiatza): Euskadiko Katalogo Industrial eta Enpresa Esportatzaileen Katalogoa. https://www.euskadi.eus/x76aAppWar/buscador_avanzado/buscadorAvanzado
- COFACE For Trade (2020ko maiatza): Argentinako herrialde-arriskua. <https://www.coface.com/Economic-Studies-and-CountryRisks/Argentina>
- Enpresa Erakundeen Espainiako Konfederazioa (CEOE) (2019). Argentina-Espainia: harreman ekonomikoak eta negozio-aukerak. 19/03/25, CEOE. Webgunea: <https://www.ceoe.es/es/>
- DATACOMEX (2020ko apirila): Espainiako kanpo-merkataritzaren estatistikak. Argentina: inportazioak eta esportazioak: http://datacomex.comercio.es/principal_comex_es.aspx
- El Cronista Comercial. (2020ko maiatza). Argentinak merkataritza libreko 20 akordio sinatu ditu 1990etik. Hobetu dute balantza komertziala?. <https://www.cronista.com/economiapolitica/Argentina-firmo-20-acuerdos-de-libre-comercio-desde-1990-mejoran-la-balanza-comercial-20190706-0009.html>
- EUSTAT (2020ko apirila): Kanpo-merkataritzaren estatistika (ECOMEX). Euskal Autonomi Erkidegotik eginiko esportazioen rankinga herrialdeka. (2019): https://www.eustat.eus/elementos/ele0005700/Ranking_de_las_exportaciones_de_la_CA_de_Euskadi_por_paises_p/tbl0005722_c.html
- EUSTAT (2020ko maiatza): Kanpo-merkataritzaren estatistika (ECOMEX). Euskal Autonomia Erkidegoko inportazioen rankinga herrialdeka (2019): https://www.eustat.eus/elementos/ele0005700/Ranking_de_las_importaciones_de_la_CA_de_Euskadi_por_paises_p/tbl0005723_c.html
- Nazioarteko Diru Funtza (NDF) (2020ko apirila): Argentinako Errepublikaren datuak. <https://www.imf.org/en/Countries/ARG>
- Nazioarteko Diru Funtza (NDF) (2020ko ekaina): World Economic Outlook Database: Argentina. <https://www.imf.org/en/Publications/WEO/Issues/2020/06/24/WEOUpdateJune2020>
- Nazioarteko Diru Funtza (NDF) (2020ko apirila): World Economic Outlook: The Great Lockdown: <https://www.imf.org/en/Publications/WEO/Issues/2020/04/14/weo-april-2020>
- Nazioarteko Diru Funtza (NDF) (2020ko martxo). “Dialogo a Fondo”. Latinoamerikako eta Karibeko politika ekonomikoa Covid-19aren garaian: <https://blog-dialogoafondo.imf.org/?p=13241>
- ICEX (2020ko maiatza). Argentina: herrialde-fitxa: <https://www.icex.es/icex/es/Navegacion-zona-contacto/libreria-icex/PUB2018783421.html?idTema=10707000&idColeccion=12060359>
- ICEX (2020ko maiatza). Argentina: herrialde-txostena: <https://www.icex.es/icex/es/navegacion-principal/todos-nuestros-servicios/informacion-de-mercados/paises/navegacion-principal/el-mercado/estudios-informes/DOC2019829547.html?idPais=AR>
- Estatistika eta Zentsuen Institutu Nazionala (2020ko maiatza): Kanpo-merkataritza: <https://www.indec.gob.ar/indec/web/Nivel3-Tema-3-2>



- Estatistika eta Zentsuen Institutu Nazionala (2020ko maiatza): Kontu nazionalak: <https://www.indec.gob.ar/indec/web/Nivel3-Tema-3-9>
- Estatistika eta Zentsuen Institutu Nazionala (2020ko maiatza): Manufaktura-industria: <https://www.indec.gob.ar/indec/web/Nivel3-Tema-3-6>
- International Trade Center. (2020). Trade Map. https://www.trademap.org/Country_SelProductCountry_TS.aspx?nvpm=3%7c032%7c%7c%7cTOTAL%7c%7c%7c2%7c1%7c1%7c2%7c1%7c2%7c1%7c1%7c1
- International Trade Center (2020). Export Potential Map. <http://exportpotential.intracen.org/en/products/tree-map?fromMarker=w&exporter=w&toMarker=i&market=32&whatMarker=k>
- Argentinako Errepublikako Ogasun Ministerioa. (2018). Balio-kateari buruzko txostenak. https://www.argentina.gob.ar/sites/default/files/sspmicro_cadenas_de_valor_automotriz.pdf
- Kanpo-harreman, Nazioarteko Merkataritza eta Kultu Ministerioa. (2020). <https://www.cancilleria.gob.ar/es/politica-exterior>
- Argentinako Errepublikako Barne-ministerioa. (2015). Ekoizpen-komplexuak eta lurraldea Argentinan. [https://www.mininterior.gov.ar/planificacion/pdf/Complejos-productivos-territorio-argentina-\(2015\).pdf](https://www.mininterior.gov.ar/planificacion/pdf/Complejos-productivos-territorio-argentina-(2015).pdf)
- Santander Trade (2020ko maiatza): Argentina: Aurkezpen orokorra: <https://santandertrade.com/es/portal/analizar-mercados/argentina/presentacion-general>
- Santander Trade (2020ko maiatza): Argentina: Politika eta ekonomia: <https://santandertrade.com/es/portal/analizar-mercados/argentina/politica-y-economia>
- Santander Trade (2020ko maiatza): Argentina: Kanpo-merkataritzaren zifrak Argentinan: <https://santandertrade.com/es/portal/analizar-mercados/argentina/cifras-comercio-exterior>
- Kanpo-merkataritzari buruzko informazio sistema (2020). Argentinari buruzko informazioa. http://www.sice.oas.org/ctyindex/ARG/ARGAgreements_s.asp
- S&P Global (2020ko maiatza). <https://www.spglobal.com/ratings/es/pdf-articles/2020-04-07-sp-global-ratings-baja-calificaciones-en-moneda-extranjera-de-argentina-a-sd-por-aplazamiento-de-pagos-de-capital>
- Argentinako Industria Batasuna. (2020ko maiatza). Industriaren egoera eta Covid-19a. <https://uia.org.ar/general/3582/situacion-de-la-industria-y-covid-19/>
- UN COMTRADE Database (2020ko maiatza): Argentina: imports & exports. <https://comtrade.un.org/data/>



12. ERANSKIN METODOLOGIKOAK

27. taula: Argentinako esportazioak sektoreka - Iturria: INDEC

Errubrikak	ABENDUA			HAMABI HILABETE		
	2019	2018	Portzentajezko bariazioa	2019	2018	Portzentajezko bariazioa
	Milioi dolar		%	Milioi dolar		%
Guztira	5.374	5.336	0,7	65.115	61.782	5,4
Lehen sektoreko produktuak	1.391	1.473	-5,6	17.540	14.021	25,1
Animalia biziak	2	3	-33,3	32	40	-20,0
Elaboratu gabeko arraina eta mariskoak	124	114	8,8	1.560	1.852	-15,8
Eztia	10	8	25,0	147	175	-16,0
Elaboratu gabeko barazkiak eta lekaleak	87	56	55,4	642	609	5,4
Fruta freskoak	31	26	19,2	710	872	-18,6
Zerealak	821	841	-2,4	9.420	7.556	24,7
Olio-haziak eta -fruituak	229	354	-35,3	4.097	1.778	130,4
Elaboratu gabeko tabakoa	23	10	130,0	238	285	-16,5
Artile zikinak	9	6	50,0	68	82	-17,1
Kotoi zuntzak	13	15	-13,3	125	169	-26,0
Metal metaliferoak, zepa eta errautsak	31	32	-3,1	374	498	-24,9
Lehen sektoreko gainerako produktuak	10	9	11,1	127	104	22,1
Nekazaritza eta abeltzaintzako enbaturak	1.989	1.766	12,6	23.981	22.941	4,5
Okelak eta okelazko prestakinak	437	259	68,7	3.946	2.714	45,4
Arrain eta marisko enbaturak	28	35	-20,0	288	281	2,5
Esnekiak	105	96	9,4	774	848	-8,7
Animalia jatorriko beste produktu batzuk	7	8	-12,5	76	70	8,6
Fruitu lehor edo prozesatuak	11	13	-15,4	142	158	-10,1
Kafea, tea, mate landarea eta espeziak	13	11	18,2	177	197	-10,2
Errotako produktuak eta haien prestakinak	58	60	-3,3	776	717	8,2
Gantzak eta olioak	349	287	21,6	4.703	3.987	18,0
Azukrea, kakaoa eta gozogintzako artikulak	26	35	-25,7	262	249	5,2
Barazki, lekale eta frutekin eginiko prestakinak	80	112	-28,6	1.014	1.213	-16,4
Edariak, likido alkoholduak eta ozpina	83	84	-1,2	892	938	-4,9
Elikadurako industriako hondakin eta soberakinak	671	641	4,7	9.525	9.977	-4,5
Larru eta tinduen eruzkinak	24	25	-4,0	253	275	-8,0
Larruak	48	49	-2,0	585	743	-21,3
Artile enbaturak	17	16	6,3	170	191	-11,0
Nekazaritza eta abeltzaintzako gainerako enbaturak	32	34	-5,9	398	383	3,9
Jatorri industrialeko enbaturak	1.620	1.804	-10,2	19.221	20.618	-6,8
Produktu kimikoak eta horiekin lotutakoak	362	317	14,2	3.845	4.321	-11,0
Plastikozko materialak eta bere enbaturak	70	89	-21,3	841	1.080	-22,1
Kautxua eta bere enbaturak	20	23	-13,0	291	273	6,6
Larruzko enbaturak, larrugintza, e.a.	2	3	-33,3	27	31	-12,9
Papera, kartoia, inprimakiak eta argitalpenak	38	41	-7,3	472	515	-8,3
Oihalak eta arropak	10	10	-	137	144	-4,9
Oinetakoak eta horien osagaiak	0	0	-31,3	9	10	-10,0
Harri, igeltsu, beira eta abarren enbaturak	13	10	30,0	154	105	46,7
Harriak, metal preziatuak eta bere enbaturak, txanponak	224	222	0,9	2.565	2.493	2,9
Metal arruntak eta bere enbaturak	155	191	-18,8	2.046	2.208	-7,3
Makina eta gailuak, material elektrikoak	110	146	-24,7	1.373	1.507	-8,9
Lurreko garraioko materiala	532	715	-25,6	6.464	7.420	-12,9
Aire, itsaso eta ibaietan nabigatzeko ibilgailuak	12	8	50,0	195	185	5,4
Jatorri industrialeko gainerako enbaturak	70	29	141,4	802	324	147,5
Erregaiak eta energia	374	292	28,1	4.374	4.201	4,1
Petrolio gordina	98	s	s	1.483	1.510	-1,8
Erregaiak	210	163	28,8	1.996	1.847	8,1
Gantzak eta olio lubrifikagarriak	4	7	-42,9	50	60	-16,7
Petrolio gasa, beste hidrokarburo batzuk (gasa) eta energia elektrikoak	58	51	13,7	748	605	23,6
Gainerako erregaiak	5	s	s	96	180	-46,7



28. taula: Argentinako inportazioak sektoreka - Iturria: INDEC

Errubrikak	ABENDUA			HAMABI HILABETE		
	2019	2018	Portzentajeko bariazioa	2019	2018	Portzentajeko bariazioa
	Milioi dolar		%	Milioi dolar		%
Guztira	3.133	3.917	-20,0	49.125	65.483	-25,0
Kapital-ondasunak	598	738	-19,0	8.478	12.238	-30,7
XVI-Makinak, gailuak eta material elektrikoa; horien zatiak	425	522	-18,6	6.097	8.082	-24,6
XVII-Garraio materiala	81	114	-28,9	1.147	2.477	-53,7
XVIII-Optikako gailuak, zehaztasunezko gailuak, material mediko-kirurgikoa, erlojuak eta musika	73	77	-5,2	951	1.267	-24,9
Gainerako kapital-ondasunak	18	25	-28,0	283	412	-31,3
Bitarteko ondasunak	1.082	1.426	-24,1	17.132	20.448	-16,2
II-Landare erreinuko produktuak	44	299	-85,3	1.857	2.805	-33,8
V-Produktu mineralak	20	54	-63,0	714	1.004	-28,9
VI-Industria kimikoetako produktuak eta horiekin lotutakoak	433	502	-13,7	6.630	7.153	-7,3
VII-Plastikoa, kautxua eta beren manufakturrak	177	152	16,4	2.252	2.540	-11,3
X-Zur-orea, papera eta kartoia	64	61	4,9	860	948	-9,3
XI-Oihalak eta bere manufakturrak	64	49	30,6	704	902	-22,0
XIII-Harri, igeltsu, zementu, amianto, mika, zeramika eta beirazko manufakturrak	30	32	-6,3	400	561	-28,7
XV-Metal arruntak eta bere manufakturrak	155	184	-15,8	2.344	2.966	-21,0
Gainerako bitarteko ondasunak	94	92	2,2	1.372	1.569	-12,6
Erregaiak eta lubrifikagarriak	258	294	-12,2	4.446	6.555	-32,2
V-Produktu mineralak	227	262	-13,4	4.071	6.153	-33,8
Gainerako erregaiak eta lubrifikagarriak	31	32	-3,1	376	403	-6,7
Kapital-ondasunentzako piezak eta osagarriak	526	709	-25,8	10.124	12.171	-16,8
XVI-Makinak, gailuak eta material elektrikoa; horien zatiak	357	531	-32,8	7.168	8.143	-12,0
XVII-Garraio materiala	111	128	-13,3	2.231	3.148	-29,1
Gainerako pieza eta osagarriak	58	51	13,7	724	880	-17,7
Kontsumo-ondasunak	483	498	-3,0	6.314	8.488	-25,6
I-Animalia biziak eta animalia erreinuko produktuak	17	21	-19,0	206	260	-20,8
II-Landare erreinuko produktuak	41	33	24,2	356	412	-13,6
IV-Elikagaiak, edariak eta tabakoa	52	42	23,8	569	812	-29,9
VI-Industria kimikoetako produktuak eta horiekin lotutakoak	134	162	-17,3	2.255	2.496	-9,7
VII-Plastikoa, kautxua eta beren manufakturrak	22	20	10,0	289	357	-19,0
XI-Oihalak eta bere manufakturrak	39	37	5,4	446	646	-31,0
XII-Oinetakoak, aterkiak, lore artifizialak eta beste batzuk	32	32	-	440	634	-30,6
XVI-Makinak, gailuak eta material elektrikoa; horien zatiak	35	32	9,4	404	704	-42,6
XVII-Garraio materiala	22	18	22,2	250	575	-56,5
XVIII-Optikako gailuak, zehaztasunezko gailuak, material mediko-kirurgikoa, erlojuak eta musika	19	14	35,7	221	266	-16,9
XX-Merkatu-gaiak eta askotariko produktuak	34	37	-8,1	407	632	-35,6
Gainerako kontsumo-ondasunak	36	49	-26,5	472	693	-31,9
Bidaiarientzako motordun ibilgailuak	164	230	-28,7	2.362	5.275	-55,2
XVII-Garraio materiala	164	230	-28,7	2.362	5.275	-55,2
Gainerakoak	23	22	4,5	268	307	-12,7

©Agencia Vasca de Internacionalización
Basque Trade and Investment S.A.



**BasqueTrade
& Investment**

Agencia Vasca de Internacionalización
Nazioartekotzeko Euskal Agentzia

GRUPO
spri
TALDEA



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**
BASQUE GOVERNMENT